


t tipi t tapa

493



Michelin gidaren izarrari muzin

03

Cédric Béchade Senpereko sukaldariak ez du begi onez ikusi Michelin gidak eman nahi izan dion izarra. Ez du nahi horrelako menpekotasunik.



Bera, Baztan eta Aresoko itzuliak

35

Bera, Baztan eta Aresoko mendi itzuliak Nafarroako mendi ibilbideen zirkuituaren barne egingen dira. Lehen Berakoa izanen da, igande honetan egingen den 30 kilometroko bira.

2009ko apirilaren 30a • XXIX. urtea
www.ttipi.net



28

Sasoiak ez du adinik

ARKUPEAK ELKARTEAK URTEROKO GIMNASIA BESTA EGIN DU

Begirale, hezitzaile eta monitoreaentzako ikastaroa

Maiatzaren 9an, larunbarekin
SOZIOLINGUISTIKA AISIALDIAN ETA HEZITZAILEEN
EGINKIZUNA HIZKUNTZA NORMALIZAZIOAN

Maiatzaren 16an, larunbarekin
BALOREETAN HEZTEN:
KULTUR ANIZTASUNA ETA BERDINTASUNA

IZEN EMATEAK

- Maiatzaren 4tik 8ra
- Bortzirietako Euskara Mankomunitatea 948 634 125 (Urko)
- Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea (9:00/13:00)

OHAR GARRANTZITSUAK

- Ikastaroa debalde da eta bukaeran parte hartzaileek ziurtagiria jasoko dute.
- Bortzirietako udaleku irekietan lanean aritzeko baloratuko da.
- Parte hartzaileei intereseko materiala banatuko zaie.

ORDUTEGIA: 9:00etatik 14:00etara / 15:30etik 17:30era

IRAUPENA: 6 ordu bakoitzak, guztira 12 ordu

ANTOLATZAIK:



www.
ardanaz
estudio.com

Tlf. 943 652 207
626 782 100
oria kalea 4 tolosa



argazkiak-dvd Erreportaiak



VIDICOM
PRODUKTORAK

948510526
676366416

Leitza

Leitza@telefonica.net

Amazabal 23
Leitza Nafarroa

DATUAK...

- Senpereko sukaldaria ospetsu bilakatu da Michelin gidak eman dion izarra ez duela begi onez ikusten jakinarazi baitu. Lehen aldia da ostalari batek holako erabakia hartzen duela.
- Cédric Béchade (Limousin, 1976) Euskal Herrian lanean hasi eta Senperen ireki zuen bere jatetxea duela bi urte: Auberge Basque (euskal ostatua).
- Goi mailako sukaldari haundienekin ikasia da Miarritzeko Hotel du Palais-n eta Parisen Piazza Athénée eta Crillon jatetxeetan. Alain Ducassen ikaslea izana da.



Cédric BÉCHADE *Senpereko Auberge Basque jatetxekoa* UTZITAKO ARGAZKIA

«Ez dut horrelako menpekotasunik eta urduritasunik nahi nire etxean»

Franck DOLOSOR

Zergatik ez duzu begi onez ikusten Michelin gidak eman dizun izarra?

Hamabi urtez jatetxe izardunetan aritu naiz lanean eta badakit zer den. Ez dut holako menpekotasunik eta urduritasunik nahi nire etxean. Michelin gidak nire ostatua eta hotelaren aipamena egin zuen iaz eta berehala gidako zuzendariari erran nion ez nuela nahi ostatua gidan agertzea nire enpresaren kontrola atxiki nahi baitut. Izarrak urduritasuna sortzen du nehork ez baitu galdu nahi ondoko urteetan. Goi mailako tokia bilakatzen da eta hori ez da batere hastapeneko proiektua hemengo atea denei irekiak baitira.

Izarra nahi ez izateak ez ote dizu publizitate handia eman?

Egia da nire jarrerak zer erran handia eman duela. Komunikabide ainitzetan agertu behar izan dut azken egunetan izarren kontua azaltzeko. Bezeroekin den harreman zuzena nahiago dut. 2008ko Gault Millau gidan urteko errebelazio izendatu ninduten eta aukeran nahiago ditut holako izendapenak Michelinen izarrak

«Egia da nire jarrerak zer erran handia eman duela. Komunikabide ainitzetan agertu behar izan dut azken egunetan izarren kontua azaltzeko. Bezeroekin den harreman zuzena nahiago dut».

baino. Nire ideiegangandik hurbilago dago. Gu urduri bagara, bezeroak sendituko du hori. Gu ez gara luxuaren bilat eta lehia hortan sartuko. Nire erabakiaren berri eman nien goi mailako maisuei eta ados zirela erran zautaten.

Lapurdi toki ona ote da zure lanbidearentzat?

Lekua atsegina da hiriak eta baserri guneak biak ondoan baitira. Gainerat, behar dudun guzia hemen berean atzematen dut: sukaldariak Azkaine eta Hendaiakoak dira, euskal oiha-lak Donapaleun egiten dauzkute, Darrigues okinak menbrillo ogia egiten du sagarnotegietan bezala, barazkiak biologikoak dira, Ibarrunen egiten dituzte, amorroinak Bankakoak dira, urdaiazpikoak Gixunekoak, eta idikia

Donostiakoa...

Zergatik bizi eta lan egin Senperen?

Nire ostatua ireki nahi izan nuelarik tokiak miatu nituen mendia eta itsaso artean. XVII. mendeko etxe hau ikusi nuen Senpere eta Donibane Lohizune artean eta berehala biziki gustatu zitzaidan. Osoki berritu dugu etxe guzia. Senperen bizitzea deliberratu dut atsegina baita bizikletaz ibiltzea lana bukatu eta. Lana ondoan daukat eta kirola ere egin dezaket. Motibazio handia ematen du horrek lanean segitzeko.

Preseski, geroa nola ikusten duzu?

Oraingo bide beretik jarraikiko dut aitzina. Hamar langileekin lanean segitzea nahi dut. Ateak denei irekiak dira eta laster 25 euroko menuak proposatuko ditugu asteazken eta ortzegun eguerditan. Iaz, Japoniako *chef* batekin tailer bat egin genuen eta aurtien arnoaren inguruko topaketak egiten ditugu. Ekainaren 20 eta 21ean, Telmo Rodriguez Errioxako arno egilea Auberge Basque nere etxerat etorriko da arno gozoaren dastaketak egiterat.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Jokin Apezetxea, Marisol Taberna, Ana Irastortza eta Patxiku Irisarri Etxalarren bildu ziren apirilaren 20an, gizon eta emakumeen aukera berdintasunaz eta konziliazioaz aritzeko.

OINARRIZKO JENDARTE ZERBITZUAK KOORDINATUTA

Lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko ekimena Bortzirietan

Berdintasun formala gure ordenamendu juridikoan jasota badago ere, eguneroko bizitzan generoaren arteko diferentziak nabariak dira: lan munduan diskriminazioa, etxeko lanen arduren banaketan, profesionalki garatzeko aukerak... Emakumeak lan ordaindua izan eta esparru publikoan parte hartzeko prozesuarekin batera ez da gertatu gizonen esparru pribatuan parte hartzeko prozesurik. Horrez gain, ez dira sortu, behar diren zainketa zerbitzuak. Ondorioz, emakumeek oraindik etxeko lanean ardura osoa beren gain uzten duen rola betetzen segitzen dute. Emakumeen eta gizonen ohituren eta arduren aldaketek epe ertain eta luzeko prozesuen emaitza izan behar dutela argi dago. Berdintasunerantz joateko lehen osagaietako bat lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko aukera izatea dela iritzita, Bortzirietako Oinarrizko Jendarte Zerbitzuek koordinatuta Ituna berritu dute 22 gizarte eragilek.

Aitor AROTZENA

2005ean ikerketa egin eta Bortzirietako emakumearen egoera bildu zen. Ondorioz, 2006an Ekintza Positiboko Plana egin zen Bortzirietan. Horretatik atera zen atal bat izan zen Lana, Familia eta Bizitza Pertsonala Uztartzeko lehen ituna, 2007-2008koa. Nafarroako Gobernuak ere, ordurako, Gizon eta Emakumeen Aukera Berdintasunareko lehen Plana (2006-2010) martxan jarri zuen eta horren barrenean, ardatzetako bat Lana, Familia eta Bizitza Pertsonala Uztartzeko Ituna dira.

Jokin Apezetxea Bortzirietako Jendarte Zerbitzuen Mankomunitateko teknikariaren erranetan, berdintasunaren barrenean garatzeko arloa da lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzea,

Jokin APEZETKEA



Bortzirietako
Jendarte
Zerbitzuen Mank.

«Kanpainak gizon eta emakumeei zuzendua egon behar du»

Garrantzitsua da hiru alor horiek kontuan hartzea: lana, familia eta bizitza pertsonala. Batzutan erraten dugu, «denbora libre haurrak zaintzeko» eta ez da hori kontua. Norberarentzat astia izatea ere bilatzen dugu, norbere espaziotxo izatea. Horregatik, kanpainak emakumei eta gizonei zuzendua egon behar du eta garbi gelditu behar du haurrak edo zaharrak zaintzea ez duela txarra izan beharrik, bere gauza politik eta positiboak, aunitz badi-tuelakoz elkarlanean eginda. Jendarte Zerbitzuetako Mankomunitateak Plangintza koordinatzen du, baina itunean parte hartzen duen erakunde bakoitzak bere arloan landu behar du horrelako bateragarritasun neurriak hartzea, bakoitzak bere tresna izan behar du: udalak udalean, eskolak eskolan...

Ana IRASTORTZA



Lesakako Irain
ikastetxeko
Guraso Elkarte

«Formazio tailerrak hagitz praktikoak eta arrakastatsuak izan dira»

Sentsibilizazio ekintzen barrinean, maiatzean hitzaldi informatiboa eta *Uraren ixiltasuna* filma eskainiko dira, erditzea prestatzeko ikastaroa eta irailean erantzunkidetasunaren inguruko tailerra egingen da, Bortzirietako ikasleei zuzendua. Martxoan hasita Bortzirietako eragilei zuzendutako formazio tailerrak arrakastatsuak izan dira. Lau saio egin dira eta parte-hartze polita izan da, 14-15 lagun elkartu ginen lau ortzegunez, non kokatuak gauden eta marko orokor bat jartzeko hagitz interesgarriak izan dira. Erantzunkidetasunerako emakume eta gizonen arteko itunak atalean, giza trebetasunen eta gatazken kudeaketarako tailerra egingen da azaroan, Guraso Elkarte eta herritarrei zuzendua orokorrean.

Marisol TABERNA



Uxua Emakume
Taldea eta
Berako zinegotzia

«Konziliazioa ez da emakumeen afera bakarrik, gizarte osoarena baizik»

Nora joan nahi dugun, zer gizarte eredu gustatuko litzaidakeen, egoera hipotetikoa marraztuz, umeak daudden bitartean, gurasoetako batek etxean gelditzeko aukera izan behar du. Berdintasunerantz joan nahi badugu, ez luke beti emakumeak izan behar, kasuan kasu, txandaka izan daiteke... Horretarako administrazioetik neurri ekonomikoak eta legalak hartu beharko lirateke. Gizartearen kontzientziazioa eta administrazioaren inplikazioa eskatzen du honek. Lan munduan bidea eman behar zaio langileari hori egin ahal izateko: ordu-tegi malguak, familiaren zaintzarako murrizketak direnean lan baldintzak mantentzeko ziurtasuna bermatu behar da. Ez du emakumeak bakarrik konziliatu behar, gizarte osoak egin behar du.

Patxiku IRISARRI



Etxalarko
alkatea

«Ituna irekia da eta arlo honetan lan egin nahi duena atxikitzen ahal da»

Lana, Familia eta Bizitza Pertsonala Uztartzeko Ituna bi urtetik berritzen denez, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren laguntzaz, bost bilera egin ditugu abenduan eta urtarrilean. Otsailaren 26an bigarren ituna sinatu genuen: Bortz udalek, zenbait Guraso Elkarte eta ikastetxek, Osasun Etxeak, Cerderna Garalurrek, udal taldeek, ELA sindikatuak eta Uxua Emakume Taldeak. Baina garbi utzi behar da ituna irekia dela eta ez dela bi urte esperatu beharrik ituna sinatzeko, nor nahi eta noiz nahi atxikitzen ahal da, arlo honetan lan egiteko borondatea baldin badu. Ahalik eta talde eta alor gehien biltzea da helburua. Seguru badi-rela arlo hau lantzen duten talde eta erakunde gehiago eta interesgarriak litzateke denak batera lan egitea.

konziliazioa, alegia. «Zergatik dira emakumeak zaharrak edo haurrak zaintzen gelditzen direnak? Zergatik emakumeek ez dute gizonek bezalako aukerarik bere bizitza profesionala gartzeko?». Marisol Tabernaren ustez, «bizi berri honetan, emakumeak hasi gara etxetik kanpo lan egiten eta horrek sortu du desoreka familetan, adinakoak bakarrik gelditzea, haurrak zeinakin utzi ez jakitea, bikote batzuk errotuak ibiltzea goiti eta beheiti... Gehien bat, emakumeak pairatzen du egoera hori. Oreak bilatzea izanen litzateke konziliazioa, baina kontzeptuak ez luke zuzenean emakumearengana joan behar, ez da emakumeen afera bakarrik». Ana Irastorzaren erranetan, «aipatu dituzuen lan horiek kulturalki emakumeak hartu ditu bere gain, hezike-

ta hori eman digute. Egoera honetan, berdintasuna lortu arte, paper horiek emakumeengana joaten dira, ez dugulako oreka hori lortu».

Aurten gauzatzen ari den programa bortz ataletan banatua dagoela adierazi du Ana Irastorzak: sentsibilizazio ekintzak, formazio ekintzak, erantzunkidetasunerako emakume eta gizonen arteko itunak, denboraren kudeaketa modu berriak eta baliabideak sortzea (jubiloteka, ludoteka...).

DENBORA KUDEATZEKO MODU BERRIAK

Denboraren kudeaketa modu berrien atalean bi jarduera egingen dira: dirulaguntzak eskuratzeko baremoan, uztartze irizpideak aintzat hartzea eskatzen zaie udalei, nahiz eta Marisol

Tabernak eta Patxiku Irisarri, udal ordezkariak diren neurrian, «hori ez dela erraza» onartu. Bertze aldetik, ardua familiarra duten pertsona langileen ordutegi malgutasuna erregulatzeko dago eta hori bai, zenbait udal langileren kasutan betetzen dela aipatu dute.

Krisia orokorra den garai honetan, langabezia goiti doa etengabe. Alde horretatik, badirudi haurrak eta zaharrak zaintzeko asti gehiago dagoela, baina Marisol Tabernak «berriz ere emakumea etxean gelditzeko arrisku handia» ikusten du. «Ez dut gaizki ikusten pertsona bat etxean gelditzea eta denbora familiarri dedikatzea, beti ere, norberarentzat astia hartuta. Baina ez da egokia beti emakumea izatea. Hori orekatu beharko litzateke».

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.
Presidentea: Pello Apezetxea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, SLU.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzioa: Gurutze Pikabea.
Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irtzoki, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...
Imprimategia: Gertu.
Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leizta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

2009ko harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	36 €
Espainia	36 €
Ipar Euskal Herria	54 €
Europa	54 €
Amerika eta Australia	120 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leizta	30 €



Aldizkari honek Eusko Jauriaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euskarabidearen laguntza jaso du



• IRAKURLEAK MINTZO •

Erabakigarria eta erabakiorra

Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan begiratzten badugu «erabakior» hitza, ikusiko dugu jartzen digula honako hau: *erabakior**e. erabakigarri. Hau da, «erabil ezazu erabakigarri hitza». Gaztelaniaz: *decisivo*, -a; *resolutorio*, -a eta frantsesez: *déterminant*, -e ; *résoluble*.

Erabaki hau aspalditxo hartu zuen Euskaltzaindiak, baina, hala eta guztiz ere, oraindik bi hitzak nahasiak leku askotan ikusten dira eta jende askori entzuten zaizkio.

Badakit mundu honetan inor ez dela perfektua eta egoera guztiak ere ez direla berdinak, baina nire ustez, bai, hitz hori, ERABAKIGARRI, alegia, ongi erabili beharko lukete gutxienez hedabide publiko eta profesionalak, EITBK, besteak beste, hots, kazetari, esatari, aurkezleek, eta abar, euskara jasoa darabilten programetan, hau da, albistegietan eta bat eta beste. Berriz diot, badaezpada ere, EUSKARA JASOA erabili behar dutenean behintzat.

Kazetari, esatari eta aurkezle askok oso ongi erabiltzen dute aipaturiko hitza; zorionak! Baina, oraindik nahasten dutenei, nik uste dut ez legokeela gaizki ahalegintxo bat eskatzea. Ea noiz nabaritzen dugun, ba, hoberako alde.

Xanti Begiristain Iruña

Antzinako Tren Txikitoren bidea

Bertizko Partzuergo Turistikoa bultzatzen ari den Eurovelo txirindula proiektuak desadostasuna eta haserrea eragin ditu garai bateko Tren Txikitoren bide inguruan bizi diren auzotarren artean.

Sunbillako inguru horretan bizi den auzotarteko bat naiz, eta egunero edozein tokitara joateko bide hori erabili behar izaten dut (bertze 40 baserri baino gehiagoko bizilagunek bezala). Gehienak oihangintzarako eta abeltzaintzarako erabiltzen den bide hori pasatzen den lurren jabeak gara. 1978an aho batez onartu zen Lau Herrietako (Sunbilla, Doneztebe, Narbarte eta Elgorriaga) Juntari mendiko komunaletara pasabidea uzteko baimena ematea, bidea egoera onean mantentzeko baldintzarekin, baina beti ere, inguruan bizi direnei lehentasuna emanaz.

Duela bi urte, ordea, gure harridurararako, Bertizko Partzuergo Turistikoa bere eskuorrietan eta Interneten bide hau Bide Berdea dela erranez publizitatea egiten ari zela ikusi genuen (eta hori gezurra da). Gure desadostasuna agertu eta Sunbillako zatian hagilearen kontra geundela errateko bilera bat egin genuen eurekin, eta bide honen alternatiba bat bila zezatela eskatu genion. Izan ere, Bide Berde baten arauak arras

zorrotzak eta gogorak dira bizilagunentzat, aziententzat eta hortik pasatzen den edozein ibilgailuentzat, eta oinezkoentzat eta turismoarako baino ez da mesedegarria. Gero kalte-tuen sinadura bilketa egin genuen eta Bertizko Partzuergoari publizitatea kentzeko eskatu genion, eta horrela egin zuen.

Hara non, sorpresaz, azken hilabete honetan, telebistan eta prentsan ikusi dugu Europako Eurovelo txirindula sarearen barrenean, Irun eta Doneztebe artean 50 kilometroko zatia egiteko asmoa dagoela, Bertizko Partzuergo Turistikoak bultzatuta. Benetan penagarriena dena da euren interesei bakarrik begiratu dietela, eta ez dutela ez kalte-tuei ezta Sunbillako Udalari ere, horren berri emateko detailerik eduki. Euren hitzetan, Europatik diruz lagunduko duten proiektua da eta hilabeteak daramatza mar txan. Jakin badakite, honen zer nolako arazoak eraginen dizkien auzotarrei eta Sunbillako zati horretako jabeei. Edozein tokitara joateko eta aukeratu dugun inguru eder honetan bizitzeko egunero egunero behar dugun bidea da.

Eskatzen dugun gauza bakarra zati honi bide alternatibo bat bilatzea da, eta guztiak, auzotarrek eta turistek, harmonia onean gozatzeko aukera izan dezagula.

Felix Espelosin Sunbilla

Erlijio tokien jabetzaz

Martxoaren bukaera aldean, Iruñeko Alde Zaharrean, *Nafarroako erlijio tokiak, norenak?* izenburupean, jardunaldiak egin zituen Udako Euskal Unibertsitateak. Azken urteetan, Nafarroako Elizak bere izenean errolatu dituen hainbat lekuren inguruan sortu den eztabaida zertan den hausnartu zuten. Mahai-inguru eta solasaldietan esku hartu zuten hizlari ugari izan ziren, horien artean Iñaxio Azkoaga eta Migel Larranbeberere apezak, eta Jose Mari Espartza Nafarroako ondarearen defentsarako plataformako kideak.

Horrek guztiak gogora ekarri dit Larraungo kasu bat. Zehazkiago esanda, Mugioko eliza etxekoa. Bertan 70 urteko emakume bat bizi da bere alaba eta 9 urteko bilobarekin. 1984 urteaz geroztik bizi izan da etxe horretan, ordaindu beharreko alokairua erlijiosoki pagatuz eta bete beharreko gainerrako konpromiso guztiak betetz. Emakume horrentzat etxe horrek, gainera, aparteko zama emozionala omen du, bertan familiako hiru kide gutxienez ikusi dituelako hiltzen, semea, senarra eta ama. Gaur egun ere, denen gorputzkin Mugioko hilerrian omen dautza.

Beno, ba, kontua da, Nafarroako Eliza ofizialak azken urteotan agindua eman omen diola sendi horri bertatik alde egiteko, etxea erabiltzen 25 urte eman ondoren, eta inolako aukerarik eskaini gabe gainera etxea

erosteko, berriz alokatze-ko, eta abar. Auziren bat ere izan omen dute, baina familiak galdu omen du, eta hemendik gutxira aipatu familia horrek behin betiko utzi beharko du apez etxea, kanpora joateko, eta Elizaren aldetik inolako babesik jaso gabe.

Udako Euskal Unibertsitateak Iruñean egin dako jardunaldi hura dela eta, Euskalerra Irratian entzun nuen Espartza jaunak informatu zuela, Madrilen, Jose Maria Aznar presidente ohiaren garaian, gai honi dagokion legeari aldaketa bat egin ziotela artikulu batean, Elizak eskatuta edo, erlijio tokiak era horretan Elizak errolatu edo erregistratu ahal izateko. Kontua da, hori guztia isilpean egin omen zutela, Espartza jaunaren arabera. Hori horrenbeste omen da horrela, non, Madrillgo gai hauean adituak diren jurista batzuek behintzat, ez omen zekiten Nafarroako Eliza egiten ari dena, betiere Espartzaren arabera.

Jakina da egia guztia behin ere ez dela egoten alde bakar batean, baina kontuan harturik Nazaretoko Jesusek beti jokatu zuela behartsuenen alde, eskaleen alde eta esan omen zuela «*Utzi dena eta jarraitu niri*», «*ez duzu lapurtuko*», eta abar, niri guztiz bitxia gertatzen zait ikustea Vatikanoko Eliza ofizialak dauzkan boterea, aberastasuna, Estatua, eta bat eta beste, Nazaretoko Jesusekin alderatuta, horren ezberdina dena.

Halaber, harrigarria suertatzen zait behatzea, Nafarroako Eliza ofizialak eta Opus Deikoek daukaten obsesioa mundu

honetako boterea, aberastasunak eta eraikinak piltzeko. Gainera, Nafarroako Eliza ofizialaren kasuan, ematen du jakatu duela nahiko modu desleial, itsusi, ez garbia eta abantailaz udalekiko erlijio tokiak erregistratzekoan, udaletakoek ez omen zekitelako deus ere, halabeharrezko era batean norbaitek jakin zuen arte zer gertatzen ari zen.

Kasu batean baino gehiagotan, gainera, udal batzuek agiri guztiak omen dituzte, frogatzen dutenak erlijio toki horiek udalena direla, esate baterako, Auritzen eta Uhartzen (Iruñerria).

Niri kontraesan handi samarra eta nahiko ulergaitza iruditzen zait, Nafarroako Eliza ofizialaren jokatzeko modu hori, kontuan harturik gainera Murgiroko familia horrek ez duela ematen oso aberatsa denik, hain zuzen ere, eta bestalde, ez dietela eman inongo azalpenik esateko zertarako behar duen Elizak etxe hori, zer egin behar duten edota zer asmo duten; bat ere ez!

Bukatzeko, esanen dut, daturen bat oker eman baldin badut, aldezturik eskatzen dudala barkamena, baina beste jarraitzen dut pentsatzen hori ez dela Elizaren aldetik, Nazaretoko Jesus imitatzeko erarik txukunena.

Xanti Begiristain
Iruñea

• 11 GALDERA LABUR •

Irrati esatari eta musikari lanetan zinen ezaguna orain arte. Orain, ordea, epaile lanetan telebistan...

Ezaguna ez dakit, nire bi lanak dira irratia eta musika, eta jarraitzen dut, epaile kontua esperientzia berria da.

ETBk *Oh Happy Days* aian 3 profesionaleko epaimahaia osatu duela dio...

Nire kasuan, urte asko daramatzat musika munduan nahiz irratigintzan, nire kideek berdin...

Larunbatetan telebistan ikusten dugunaz haratago, zer dago kamaren gibelean?

Oso erreala da ikusten duzuen guzia, atzealdean, pasilloetan urduritasunak ikusten edo nabaritzen dira, malkoak, agurrak eta batik bat programan da goen giro bikaina.

Zergatik zaude *Oh Happy Day* ko epaimahaian?

Kasting batekin hasi zen guzia, luze xamarra da kontatze...

Zein da zure lana?

Epaimahaikide hitzak berak esaten du, taldeen lana epaitzea.

Serio hartu al duzu epaile lana?

Serio? Serio ikusten ahal nauzue ba programan? Kar kar kar. Lanak berak eskatzen duen seriotasunakin bai, baina batik bat gogotsu.

Baina reality bat da eta halako saioetan morboaren bila ibiltzen dira...

Egia da, baina horretan suertea izan dugu, programaren helburua ez da izan morboa sortu nahiz zabaltzea, lehiaketa izan da, musika saioa...

Ez da telebistan ikusi zaitugun lehenbiziko aldia...

Egia da, orain urte batzuk Gasteizko pestetan *Suak* saioa aurkeztu nuen Estitxu Fernandezekin.

Nola daramazu lehen baino «famatuago» izate hori?


Bueno, ez dut uste famatu garenik, lehen baino ezagunagoak bai, audientzia ona izan du, eta beno, tar-teka somatzen zuzen jendea zuri begira edo utaz hizketan.

Irratia ala telebista?

Irratia izan da nire txokoa baina telebista ere gustuko dut.

Etorkizunera begira, telebistan segitzea gustatuko litzaizuke?

Bueno, nik ahal dudana bitartean irratian jarraituko dut, telebistatik zerbait suertatzen bada, eta egin badezaket ba bikain, gustura.



Unai ZABALETA

Irrati esataria eta Oh Happy Day saioko epailea



UDALAK

la 18 milioi euroko zorra dute eskualdeko udalek banketxeekin

Malerrekako sei herrik eta Leitzaldeko bik ez dute inongo zorrik

ttipi-ttapa

Ttipi-Ttaparen Hego Euskal Herriko eremuan dauden 25 udalerrietatik 17k 17.731.000 euroko zorrek in txi zuten 2008a. Hala ondoriozta daiteke Espainiako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Ministerioak lehen aldiz apiril hasieran argitaratu zituen datuetatik. Emandako zenbakiak banketxeetan dauden zorrek dira, kredituei dagozkienak, eta beraz, zor komertzialak ez dira hor sartzen.

ZERK SORTUTAKO ZORRA?

Arrazoi ugari egon daitezke udal bakoitzaren zorpetze mailaren gibelean. Batzuetan finantziario desegokia izan daiteke, baina bertzeetan inbertsio haundiak egin dituztelako dute zor hori, azpiegiturretan obrak haundiak egin dituztelako. Zorrik ez dutenen kasuan, berriz, inbertsiorik egin ez dute-lako izan daiteke.

ZUGARRAMURDI BIZTANLEKO ZORRIK HAUNDIENA DUENA

Zorpetze mailarik altuena duen herria, biztanleko duen zorraren arabera, Zugarramurdi

HERRIA	ZORPETZE MAILA	ZORRA BIZTANLEKO
ARANO	0 €	0 €
ARANTZA	473.000 €	739 €
ARESO	387.000 €	1.373 €
BAZTAN	5.988.000 €	750 €
BEINTZA-LABAIEN	0 €	0 €
BERA	955.000 €	260 €
BERTIZARANA	273.000 €	418 €
DONAMARIA	0 €	0 €
DONEZTEBE	467.000 €	292 €
ELGORRIAGA	0 €	0 €
ERATSUN	50.000 €	303 €
ETXALAR	329.000 €	400 €
EZKURRA	0 €	0 €
GOIZUETA	0 €	0 €
IGANTZI	206.000 €	336 €
ITUREN	272.000 €	565 €
LEITZA	2.496.000 €	868 €
LESAKA	4.528.000 €	1.629 €
OITZ	112.000 €	714 €
SALDIAS	0 €	0 €
SUNBILLA	45.000 €	70 €
URDAZUBI	494.000 €	1.300 €
URROTZ	48.000 €	249 €
ZUBIETA	0 €	0 €
ZUGARRAMURDI	608.000 €	2.702 €
GUZTIRA	17.731.000 €	519 € (BATAZ BERTZE)

da, 2.702 euro zor baititu herritar bakoitzeko. Ondotik, Lesaka, Areso eta Urdazubi datoz. Kopuru absolutuei erreparaturuz, berriz, 5.988.000 euroekin Baztanek du zorrik haundiena.

Nafarroa guztiko datuak kontuan hartuz, zazpi herri dira Zugarramurdiaren zorpetze mailatik goiti dauden he-

rriak: Aras (3.120 euroko zorra biztanleko), Eneritz (3.373 euro biztanleko), Irañeta (3.286 euro biztanleko), Lerga (5.154 euro biztanleko), Oloritz (5.682 euro biztanleko), Orbara (4.109 euro biztanleko) eta Titarap (3.492 euro biztanleko).

Bertzalde, aipatu, eskualdeko zortzi herrik ez

dutela inongo zorrik banketxeekin: Arano, Beintza-Labaien, Donamaria, Ezkurra, Elgorriaga, Goizueta, Saldias eta Zubieta dira.

17.731.000 euroko zorra eskualdeko biztanleria osoa kontuan hartuz kalkulatu balitz, batzaz bertze, herritar bakoitzeko zorra 519 eurokoa izanen litzateke.

N-121A

Endarlatsa-Irun zatiko lanak «udan akituak»

ttipi-ttapa

N-121Ako obraren barne, Endarlatsa-Irun zatiko obrak uda honetarako akituak izanen direlakoan daude Nafarroako Gobernu eta Gipuzkoako Foru Aldundia. Hala adierazi zuten apirilaren 17an bi aldeetako ordezkariak Donostian egindako bilkuran. Bertzeak bertze, Laura Alba Nafarroako Herrilan Kontseilaria eta Eneko Goia Gipuzkoako Foru Aldundiko bozemailea bildu ziren. Endarlatsa-Irun arteko lanen erritmoa «ona» dela aipatu zuten: «uda honetarako bukatuak egonen direla uste dugu». Aipatu zatiko obrak Nafarroako Gobernuak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 2004an sinatutako hitzarmenaren bidez egiten ari dira. Akordio horren arabera, Gipuzkoak lanen gastua bere gain hartuko du, eta Nafarroak epe ertainerako bidearen jabetza utziko dio Gipuzkoari.

N-121A errepideko lanak bortz zatitan egiten ari dira: Ostizeko saihesbidea, Igantzi-Etxalar, Etxalar-Bera, Bera-Endarlatsa eta Endarlatsa-Irun. Nafarroako Gobernuak 75 milioi euro bideratuko ditu guztira.



BERA

Funverako zuzendaritzak aurkeztutako erregulazioa onartu du Nafarroako Gobernuak

Langileak egunero kontzentrazioak egiten ari dira gosari eta berendu orduetan

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak onartu egindu Funverako zuzendaritzak 144 langilerentzat 195 egunetarako aurkeztutako enplegua erregulatzeko eskaera. Apirilaren 17an onartu zuen.

Langileen Batzordeak (ELA eta LAB) EREa «*luparekin begiratzeko eta ez onartzeko*» eskarazio Gobemuari, honako argudioetan oinarrituz: «*16 oporegun galduko ditugu, aparteko pagatik %15 bakarrik kobratuko dugu, gure langabeziatik biziko gara, eta urteko lan egutegirik gabe, hilabetero eginez, enpresak nahi duenean joan beharko dugu lanera*». Gaineratu zuenez, «*enpresak urte akabera bitartean, hilabetero 300.000 euro aurreztuko ditu gure soldatekin*».

Baina langileek egingdako eskaria ez dute aintzat hartu Gobernuan. Egoerarekin kezkatuta, joan den ortziralean biltzekoa zen Langileen Batzordea, baina Ierro hauek idazterakoan ez genuen bileraren nondik

norakoen berririk. Aipatu, egunero goiz-arratsalde, gosari eta berendu orduetan, langileek 15 minutuko kontzentrazioak egiten dituztela bulego aitzinean.

Udalak, bere aldetik, arduratuta, Langileen Batzordeari babesa eskaintzeko mozioa onartu zuen aho batez martxoaren 24an. Erregulazioan dauden berzte langileei ere elkartasuna adierazi zien.

Matzadan argia

Matzada futbol-zelaian argiteri berria izanen dute heldu den denboralditik aitzinera. Apirilaren 22an horretarako hitzarmena sinatu zuten lamotenean Gure Txokoa elkarteak, Gipuzkoako Futbol Federazioak eta Udalak. Gipuzkoako Federazioak osorik ordainduko ditu lanak, 90.000 euro inguruko inbertsioarekin. Dirua, ordea, Madriletik dator, kinielek sortzen duten irabazien %1 lurraldeetako federazioetara joaten baita. Belar artifizialaren aukera ere solasgai izan



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Gazte Eguna larunbatean

Kaxerna Gaztetxeak antolatuta Gazte Eguna egingen da larunbat honetan, maiatzak 2. Aurtengoa seigarren edizioa izanen da. 2004an antolatu zuten lehen aldiz, Gazte Asanbladaren izenean, baina Kaxerna lortuz geroztik, Gaztetxean egiten dituzte ekitaldiak. Hasierako hiru helburuei helduko diote aldi honetan ere: «*herriko gazteen harremanak areagotzea; euskara, gure hizkuntza, solastu, maitatu eta errespetatzea eta herriko jendea antolakuntzaz eta autogestioz, Gaztetxea aitzinera ateratzen ahal dela jabetzea*». Honela joanen da eguna: 11:00etan **aurkezpena**. Ondotik, taldetan banatuta, taldekide batzuek **lehiaketarako paella** egin beharko dute, eta bertzeek **Gaztetxe sarrerako paretan mural** bat. Eguerdian lehiaketako paellarekin **bazkaria**. Arratsaldean, **jokuak** taldeka. Gero, herriko ostatuetan, **triki-txiste-po-teoa**. Arratsean, **berendu-afaria** eta **musika** Katakuko terrazan. Apuntatzeko epea astearte honetan, apirilak 28, akitzekoa zen (Katakuko ostatuan).

zuten. 300.000 euro inguru kostako litzateke.

Larun Haizperen kanpaina

Kanpaina berezia paratu du abian Larun Haizpe elkarteak: herriko komertzioak sustatu eta berratarrek zein ingurukoek Beran kontsumitu dezaten, **Larun Haizpek gonbidatzen zaitu...** lelopean hiru ataletan banatutako kanpaina hasi du.

Lehena apirilaren 13tik 19ra egin zen, **Larun Haizpek irakurtzera gonbidatzen zaitu** izenekoa, bezeroak erosketak egiteagatik 50 euroko bonoen zozketan sartu ziren. Irabazleek irakurtarako materiala erosiz

trukatu ahal izan zuten bonoa Igone eta Elkar liburu-dendetan, Prieto eta Artieda estankonetan eta Purienean.

Bigarren zatia **zure barnea zaintzeko** izanen da eta maiatzaren 18tik 24ra egingen da. Elikadura dendetan kontsumitzeko 50 euroko bonoak zozketatuko dira. Denda hauek hartuko dute parte: Pikabea harategia, Elortziri eta Txalupa arraindegia, Oroz, Susana eta Telletxea janari-dendak, Jaione gozotegia, Labezar eta Sarobe okindegiak eta Errandonea fruitu eta barazkiak

Hirugarren atala ekainaren 15etik 21era egingen da, **zure burua goxa-**

tzeko. Duue, Ilaia, Xirgil eta Yoan ilea-apaindegietan, Katea-Bike bizikleten salmenta dendan eta Altzugarai eta Txomin Irazoki fisioterapeutekin gastatzeko 50 euroko bonoak zozketatuko dira bezeroen artean.

Ttapi-Ttapa Telebistaren aldeko sinadura

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak hasi duen **Ttapi-Ttapa Telebistaren aldeko sinadura** bilketa toki hauetan egin daiteke Beran: Herriko Etxean, Ricardo Baroja ikastetxean, Labiaga Ikastolan, Toki-Ona Institutuan, Kultur Etxean eta Liburutegian.

ALBERTO RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

LABEZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

ERREKALDE
PLAZA KONSTITUCIOA
DUTZAK
TFAPA: 948 630 259 6324

LESAKA

San Fermin erretiratuen elkarteak Ama eta Amatzien Eguna ospatuko du igandean

Maiatzaren 1ean, berriz, Araututako Ibilaldia egingen du

Aitor AROTZENA

San Fermin erretiratuen elkarteak Ama eta Amatzien Eguna ospatuko du igandean, maiatzaren 1ean, Araututako Ibilaldia egingen du. Honek honetarako, maiatzaren 3rako. Bazkaria 14:00etan izanen da Erretiratuen egoitzan, honako menu honekin: kroketak, entsalada epela, bildotsa txilindron erara, eta izozkia txokolate beroarekin postterako. Dena, ura, ardoa, kaba, kafea eta koparekin ongi hornitua.

Ama eta Amatzien Eguna baino lehen, ortziraletan, maiatzaren 1ean, ohiko Ibilaldi Arautua antolatu du San Fermin erretiratuen elkarteak. Goizean 9:30ean irekiko da izen-ematea eta 10:00etan abiatuko da lehenbiziko bikotea. Elkartearen egoitzatik abiatuta, Landazelaietatik saihesbidera atera eta Osasun Zentrora bueltatuko dira, parkea, Sumusa, Kastillobaita, Irubide, Martxanpaita,



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Dispertsio politikaren 20 urteak salatzeako ekitaldiak egin ziren apirilaren 18an

Dispertsio politikak 20 urte bete dituela salatzeako, apirilaren 14tik 19a furgoneta bira antolatu zuen Etxerat-ek, Euskal Herri osoan lau zutaberekin egin dena, herrialde bakoitzean bana. Sei egunez herri desberdinetatik pasatu zen, Durangon ekitaldi nazional batekin bukatzeko. Bortzrietara apirilaren 18an iritsi zen, arratsaldean, eta ekimen desberdinak antolatu ziren. Honela, argazkian ageri den kontzentrazioa egin zen Plazan, gero martxa egin zen oinez Lesakatik Berara, eta bertan kontzentrazioa eta afaria egin ziren. Herriko presoen kasuan, 40 minutuko bixitak egiteko 9.000 kilometro egin behar dituzte astero senide eta lagunek.

Txakain, Matxitenea, Lizardibaitako zubia, Eroski eta Plaza Zaha-

rran barna, berriz ere erretiratuen egoitzara bueltatzeko. Segidan,

hameketakoa izanena da parte hartzen duten bazkideendako.

Udal gehiengoa «epaitegira ez eramateko erabakiak» hartzeko gai dela uste du PNVk

Kontrakoa «hagitz larria» litzatekeela uste du

A.A.

Udalean gehiengoa duten taldeek «epaitegietara eramanen ez gaituzten erabakiak» hartzeko gai direla uste du PNVk, «kontrakoa hagitz larria» izanen litzatekeelako. Ezohiko batzarrera ez azaltzeko jarrera azaldu zuela dio eta berriz ere hori gertatuko dela «identifikatu eta erregistratu gabe deitzen bada plenoa». PNV udal taldea «harri-

tua» dago Aralar alderdiak Lesakako Herriko Etxean gertatzen diren gaiekin azaltzen duen interesarekin. Modu berean, «kurioso» iruditzen zaio alkatetza eta oposizioaren artean ezadostasuna dagoenean Aralar ateratzea gehiengoa duen taldearen babesean eta PNVk Onin eta Aralar harremanatzen dituen «Oninekoak hori gezurtatu eta bere indepen-

dentzia azaltzea». Aralarrek Lesakan Udalak ezker abertzaleko kideekin egin omen dituen bileren ezagutza hain sakona izateak ere harritzen du PNV, «ofizialki ez baitu zinegotzirik eta guk, bostekin, ez baitugu bilera horien informazioz edukirik». Nahi dutenarekin biltzen ahal direla dio PNVk, «Udalaren funtzionamenduari eta elkarbizitzari eragiten ez dion bitartean».

A.A.

Itsaso Fagoaga Espainiako txapeldun izan da aurten ere Skeet Olinpikoan, eta berak duen Espainiako errekorretik plater bakar batera gelditu zen apirilaren 18 eta 19an Madrilan. 75 platererik 65 hautsi zituen eta errekorra 66rekin dauka. Saillkapen orokorrerako lehian ere aritu zen Itsaso, bertze bi saio eginez. 109 platerekin hamekagarren

izan zen. Antonio Javier Fagoaga aita ere bikain ibili zen. Hirugarren mailako bere kategorian txapeldun izan zen, sekulako kontzentrazioarekin aritu zen eta final nagusian sartzea lortu zuen, bigarren postuan gainera. Baina finalean urduritu egin zen eta azkenean, seigarren izan zen saillkapen orokorrean. 125 plateretik 119 hautsi zituen guzira Antonio Javierrek.



ETXALAR

Bertso-desafio berezia egingen dute Herriko ortziral honetan

Xabier Silveira eta Joxe Juan Zubieta *Etxabe*, Haritz Casabal eta Haritz Etxeberria *Ministraren* kontra ariko dira

Joseba eta Nerea

Ortziral honetan, maiatzak 1, bertso-saio berezia egingen dute Herriko Ostatuan. Xabier Silveira eta Joxe Juan Zubieta *Etxabe* lesakarrak Haritz Casabal eta Haritz Etxeberria *Ministraren* kontra ariko dira bertso-desafio ikusgarrian. Joseba Olagarai izanen da gai-jartzailea. 23:00etan hasiko da saioa eta sarrera debalde izanen da. Desafio originala eta «desberdina» izanen dela aitazineratu digu Olagarai.

Herriko argiteria berrituko dute

Aitzineko Hirurteko Planean Udalak herriko argiteria moldatzeko eskaera egin zuen Nafarroako Gobernuan bai-

na ez zioten eman. Hirurtekoa akabatutakotan, eta kontuak ikusita, Etxalarri dirulaguntza hau ematea erabaki du Nafarroako Gobernuak.

Udala martxan paratu da proiektua aitzinera ateratzeko. Dagoeneko lana emana dago, eta Lizarrako Electricidad Fija enpresak egingen ditu 122.000 euroko aurrekontua duten lanak, horien artean bonbilak aldatzea, farolaren burua aldatzea, behar diren leketan kableak berritzea, eta zenbait puntutan farola gehiago paratzea izanen dira lan nagusiak, bertzeak bertze.

Lan hauetan maiztzean hasiko dira, eta abuzturako akabatzea espero dute.



ARGAZKIA: UTZITAKO ARGAZKIA

Patinaje ikastaroaren akabila

Joan den apirilaren hasieran akabatu zuten patinaje ikastaroa. Jone Bizonte eta Andrea Elizalde izan dira irakasleak eta, larunbatero, 30 haur elkartu dira frontoian patinetan ibiliz ongi pasatzera. Jokuak egiten, *hockey* eta bertze hainbat ariketetan aritu dira eta, irakasleek erran digutenez, «*balorazio positiboa*» egin dute. «*Aurtengo martxa ona ikusita, hurrengo urterako ere animatuta gaude*», adierazi digu Andrea Elizaldek. Bixandatan banatuta egin dituzte ikastaroak, 11:00etatik 12:00etara gaztetxoek eta 12:00etatik 13:00etara koxkorrenak. Argazkian ikastaroko parte-hartzaile batzuk ageri dira Jone eta Andrea irakasleekin.

Kooperatibako Batzar Orokorra

Apirilaren 18an egin zuten Usoa Nekazari Kooperatibako urteroko Batzar Orokorra. Arantxa Zubieta presidentek erran digunez, kooperatibaren egoera «*egonkorra*» da, aurtentzuzkoaren prezioa goitu egin baldin bada ere, salmenta mantendu egin baita. Gasoilaren salmentak ere goiti egin du, bai A motakoak, bai B motakoak ere.

Aurtengo egitasmo berrien barrenean, ez dute aldaketa handirik egingen. Aldaketa nagusia bezeroari begirako bat izanen da: orain arte kooperatibatik produktu bat erosterakoan erosketaren berri ematen zuten bi orri ateratzen zituzten, bata sinatu eta bertan gelditzen zena, eta bertzea bezeroaren eskuetan. Hemendik aitzinera pauper bakarra aterako dute, aitzinekoa baino ti-

kiagoa. Modu honetan, paperean egiten zuten gastua murriztuko dute. Batzarraren ondotik, afaria egin zuten Anttonion 25 lagun inguruk.

Bataio bakarra aurtentzuzkoan

Urtero bezala, Pazko Igandean bataioak egin zituzten elizan. Aurtentzuzkoan haur bakarria baitaiatu zuten, Antsolokuetako Iker Otxoteko Bengoetxea.

ZDANSA
 MARKA GUZTIEN KONPONKETA
 Benarta, 2 - Alkaiaga Industrialea
 LESAKA (sarean Beratik)
 Tel: 948 625 555 - Fax: 948 625 505

Javier Manterola
Tekniko instalazioen
 iturgintza • gasa
 kalifikazioa
 Tfnoa: 629449602 • BERA

USOA
 nekazari
 kooperatiba
 ganaduarentzat
 pentsurik egokiena
 Tel: 948 635 214 • ETXALAR

PRIM, c.b.
 Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masalak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
 Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

IGANTZI

Udaberriko Bestak asteburu luze honetan

Merkatua, mendi ateraldiak, bertso saioak, antzerkiak... izanen dira

ttipi-ttapa

Azken urteotan bezala, aruten ere Udaberriko Bestak izanen dira, Euskara Batzordeak antolatuta. Ekitaldiak ortziraletan, maiatzak 1, hasiko dira, eta igandera arte iraunen dute.

HASTEKO MERKATUA

2007an herritarrek emandako gauzei merkaturatu zuten Batzordeak, biltzen zen diruarekin herriko mapa egiteko. Aurtengoan, maiatzaren 1ean izanen da, 11:00etatik 18:00ak arte, frontoian. Kasu honetan, antolatzailea Igantziako Abesbatza da, eta bilduko den dirua 20. urteurren ospakizunak finantzatzeko izanen da.

Abesbatzak herriko etxe guztietara idatzi bat zabaldu du, merkaturatu nola antolatuko duen eta bildu nahi dituen gauzak zein diren azalduz. Batez ere, honelakoak proposatu dituzte: etxean

egindako produktuak (kontserbak, gaztak, ez-tia, postreak, mermeladak, likoreak...), baratzeako produktuak, sendabelarrak eta ukenduak, eskulanak, jostailuak, ipuinak, CDak eta DVDak, eta gisa horretakoak.

Bertzalde, herriko elkarte, ostatu eta dendek emandako puskekin zozketa egingen da; egunguzian horretarako txartelak erosi ahaliko dira, eta 18:00etan zenbaki sari-dunak aterako dira.

Ordu horretan, herriko bertso eskolan dabil-tzan ikasleen saioa izanen da, frontoian bertan.

ETA EKITALDI GEHIAGO

Larunbat goizerako, maiatzak 2, mendira ateraldi bat antolatu du Guraso Elkarteak haur eta gurasoentzat. Frontoian elkartuko dira 10:00etan, eta handik Mugako Egirajoen dira. Bakoitzak bere hamaitakoa eraman behar du eta eguer-



ARGAZKIA: GOIKO

Herriko pilotariak txapel-dun

Belate Elkartek antolatzen duen Nafarroako Klub Arteko Txapelketaren finalak jokatu ziren apirilaren 4an Beran eta Lesakan, eta iaz bezala, txapel banarekin itzuli ziren Unai Telletxea eta Joseba Aldabe –argazkian–. Lehen mailako infantilen kategorian, 18 eta 3 irabazi zieten Iruñeko Donibane taldeko Laso eta Bakaikoari. Benjaminetan, berriz, Biltokiko bertze bikote batek ere jokatu zuen finala, Jokin Mitxeok eta Enaitz Telletxeak, baina hauek Goizuetako Salaberria eta Apezetxearen kontra galdu zuten.

dirako itzuliko dira.

Egun berean, 19:00etan, Baratzondon, eskolako 2. zikloko ikasleek prestatutako antzerki emanaldia izanen da. Gogoratu behar da azken urteotan eskolan bereziki lantzen ari direla antzerkigintza, horretarako espreski ekartzen duten irakasle batekin.

21:00etan barrikotea izanen da Biltokik antolatua, elkartean bertan. Aipatu, afori hori egin ahal izateko gutxienez 25 lagunek izena ematea beharrezkoa zela; berri hau idazterako garaian izen emateko epea oraindik irekia zegoen.

Asteburuari akabera behar bezala emateko, ibilaldi bat antolatu du Euskara Batzordeak maiatzaren 3rako. Iaz Batzordeak herriko mapa argitaratu zuen, eta bertan bildu ziren herriko hainbat eta hainbat toki izen. Mapa horretako toki interesgarrienak ezagutzeko asmoarekin antolatu da ibilaldia, eta maparen egileek gidatuko dute. Ibilaldian nahi duen guztiak parte har dezake; nahikoa izanen da igandean 10:00etan frontoira agertzea; bueltak bizpahiru ordu iraunen du.

Azkenik, igandean 16:00etan haurrentzako

zinema saioa izanen da, Guraso Elkartearen eskutik.

Neurri zorrotzak zabor gehiago ez uzteko

Sarritan salatu arren, arazoak bere horretan segitzen du: Irisarrira sartzeko bidegurutzean gero eta hondakin gehiago pilatzen dira. Udalak bertze behin eskatu du horrelakorik ez egiteko, eta kontrol neurri zorrotzak ere iragarri ditu. Hala, baliteke Sepronari (Ingurumenaren Babeserako Guardia Zibilaren Zerbitzua) ingurua kontrolatzeko eskatzea.

BAZTAN BIDASOAKO sagardotegiak

LARRALDEA eta LINDURRENBORDA

Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA
Telera 3000 • LEKARRE
948 637777 • 626 604317

LINDURRENBORDA
Telera 3000 • LESAKA
948 637777

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autozomak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aumekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittiria, 71-behea • Tel: 948 637 050 • Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Villa, 4 • Tel: 948 133 328 • Faxa: 948 133 713

ARANTZA

Ekaitza Elkarateak Goizuetara mendi ibilaldia antolatu du maiatzaren 16rako

Izena herriko ostatuetan eman behar da maiatzaren 6a baino lehen

Nerea ALTZURI

Bi urtetik behin egiten den Goizuetako mendi ibilaldia maiatzaren 16an izanen da. Arantzako Mendi Itzulia ez den urtean, Ekaitza Elkarateak Goizuetara egun pasa antolatzen du. Egundorretan 8:00etan herriko plaza-tik abiatu eta bazkalordurako Goizuetara ailegatuko dira. Han duxatu eta arropak aldatu ondotik, Umore Ona Elkartearen bazkalduko dute. Bertakoek aski harrera ona egiten diete herritarrei otordu goxoa prestatuz. Bazkalduta, arratsaldean etxera itzultzeko autobusa izanen da.

Goizuetara joateko ateraldi honetan parte hartu nahi duten guziek maiatzaren 6a baino lehen herriko ostatuetan eman behar dute izena, 15 euroko seinalea utziz.

Ea eguraldi polita izaten den mendi itzulia egiteko, merezi du-eta!



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Duela lau urte egin zen ateraldian 50 lagun inguru animatu ziren Goizuetara oinez joateko.

Eskolako neska-mutikoak kanpaldian

Ikasturte akabera hurbiltzarekin batera, urtero bezala, eskolako gaztetxoek hainbat ateraldi eginen dituzte hurrengo asteetan.

Eskolako nagusienak izanen dira kanpaldian joaten lehenbiziakoak. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak eta DBH 1 eta

2. mailako ikasleak Zuhatzara (Araba) joanen dira maiatzaren 6tik 8ra.

Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako neska-mutikoek eginen dute hurrengo ateraldia. Maiatzaren 20an eta 21ean Beirera (Nafarroa) joanen dira.

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleak, berriz, maiatzaren 27tik 29ra Lizarrara

(Nafarroa) joanen dira eta eskolako tikiak, Haur Hezkuntzakoak, maiatzaren 28an eta 29an Hondarribian (Gipuzkoa) izanen dira.

Donostiatik Arantzara oinez

Maiatzaren lehen besta eguna izaten da. Urte mordoska badu egundorretan egiten den ohitura batek: Donostia-Arantza mendi

ibilaldiak 40. aldia du aurtun. Ortziral honetan, ehun lagun inguru herrira hurbilduko dira.

Lagun koadrilla batek Donostiatik abiatu eta Arantza arteko bidaia oinez eginen du. Goizean 5:00etan Donostiako Egia auzotik abiatuko dira, eta tartean zenbait herritar ere izanen dira. Eguerdira herrira ailegatuko dira mendizaleak eta frexkatu eta arropak aldatu ostean, ohiko otordua eginen dute. Hala ere, Donostiatik ez bada, zenbait lagunek Eskasetik oinez etortzeko hautua egiten dute bertze urteetan eta aurtun ere baliteke hori egitea; bertze batzuek, ordea, autobusez joan-etorri osoa eginen dute. Arratsaldean Donostia itzultzeko autobusa izaten da normalean, baina oraingo honetan, asteburu luzea denez, batzuk herrian ere geldituko dira eguna lasaigo pasatzeko.

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA

José I. Gonzalez Enguita
pinturak
barrukoak eta fatxadak
tel. 666 235 466

BORTZIRI
UNSION ANAIAK
Sukalderako altzariak
Berezu etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

iparra
San Ipparriko Alizoi
FISIOTERAPISTA
Bikaintza eta
Kardiologia
00 33 559 48 19 32

BORTZIRIAK

Krisia dela-eta manifestazioa deitu dute Bortzirietako hiru alkatek

Arantza, Bera eta Etxalarkoek egin dute deia, maiatzaren 9rako

ttipi-ttapa

Sistema bera da, bali ez duena. Horixe salatzen da manifestazioa egingen da maiatzaren 9an, larunbata, Alkaigatik Berara bitartean. Ekimena Ainara Maia Arantzako alkateak, Josu Iratzoki Berakoak eta Patxiku Irisarri Etxalarko alkateak paratu dute abian, «*krisiaren aitzinean zonalde osoa gorpuztu eta bat egin dezan*». Krisia dela-eta, euren ekarpena egin nahi dutelako egin dutela deialdia hiru herrietako alkateek.

Manifestazioa eguerdian, 12:00etan hasiko da, eta aipatu bezala, Alkaigatik Berara egingen da, «*lantokiak eta herria lotuz*».

Maia, Iratzoki eta Irisarriren hitzetan, «*langileak, autonomoak, zerbitzuetan lan egiten dutenak, krisian dira*». Horrez gain, «*zerbitzu publikoa eman behar duten Udalak eta Mankomunitateak ere kri-*



UTZITAKO ARGAZKIA

Eraikuntza sektorea, erraterako, krisiak bete betean jo du, baina ez da bakarra. Lantokiak eta bertzelako erakundeak ere gogor astindu ditu krisiak, eta hori irudikatu nahi da maiatzaren 9ko manifestazioan.

*sian daude, sistemak hala behartuta (hirigintza eta mendiko sarre-
ren lotura) eta Nafarroako Gobernu-
ko finantziario siste-
mak itota, toki entita-
teei dirulaguntzak murriztu baitzaizkie, zama osoa Udalen gain utziz».*

MEZUA ZABALDU NAHI DA
Deialdia zabaltzeko as-

moz, zonaldeko eragileekin hitz egiteko asmoa dute: «*EHNE, ELA, LAB, alderdi politikoak eta zerbitzu, emakume, kirol, kultur eta etorkinen elkarteekin*». Mezua mozio bidez ere zabalduko dute eta atxikimenduak biltzeko, helbide elektroniko bat paratu dute abian: herria@etxalar.org.

GREBA OROKORRA

«GIROTZEKO»

Maiatzaren 9ko manifestazioa ELA, LAB, ESK, EILAS, EHNE eta Hiru sindikatuek maiatzaren 21erako deitu duten greba orokorra «*girotzeko aukera polita*» izan daitekeela uste dute hiru herrietako alkateek. «*Hortik aitzinera aukera guztiak irekita daude*».

Komiki ikastaroa hasiko da ortzegunean

ttipi-ttapa

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatuta, komiki ikastaroa egingen da datozen asteetan Berako Kultur Etxean. Lehendabiziko saioa ortzegun honetan, apirilak 30, egingen da eta ekainera bitarte ortzegunero egingen da, arratsaldean, 19:00etatik 20:30era. Tailer praktikoak izanen dira, komikiak egingen dituzte, eta izena eman nahi duenak Bortzirietako Euskara Mankomunitatera jo beharko du: euskara@euskara.org helbidera idatziz edo 948 634125 telefonora deituz.

**ttipi
ttapa**

☎ (0034) 948 635458









Haremanetan jarri:
 Europe Direct
 Cedema Garia Elkarlea
 Berrubide Kalea, 40 Elkarlea
 001 bulegoa
 31013 Arbizu (Nafarroa)
 Tel: 948 20 70 59
 Posta elektronikoa: arbizu@cedema.es

Europar
Energia
Sortzen

Maiatzaren 9a, Europaren
egunaren ospakizuna,
Zorionak!

<http://www.cedema.es/europa/eu>

DIRULAGUNTZAK

354.600 euro jasoko dituzte udalek langileak kontratatzeko

Eskualdean guztira 70 langile hartuko dira

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuko Enplegu Zerbitzuak udal, kontzeju, junta eta mankomunitateei langileak kontratatzeko urtero ematen dien laguntza 4.152.759 eurokoa izanen da Nafarroan, eta **Ttipi-Ttapa** hartzen duen eskualdearen kasuan, subentzioa 354.601 eurokoa izanen da.

Nafarroan guztira 213 udal erakundek hartuko dute subentzioa eta gi-

zarte bazterketarako arriskua duten edo pres-taziorik ez duten langa-been kontratazioari le-hentasuna eman behar-ko zaio. Udal erakunde-ek egin ditzaketen obra edo lanetan aritzeko izan-n da.

Gure inguruan, 21 udalek jasoko dute su-bentzioa eta, kontzeju, junta eta mankomunita-teei bideratukoetan hi-ru entitatek. Guztira, 70 langile kontratatuko dira.

HERRIA	DIRULAGUNTZA	ZERTARAKO
ARANTZA	15.450 €	3 langile bide eta karriken kontserbaziorako
ARESO	9.949 €	2 langile bide eta herri lurren mantenimendurako
BAZTAN	28.080 €	2 langile eremu publikoetako mantenimendurako
BEINTZA-LABAIEN	13.150 €	6 langile labadero, eskola eta frontoiko lanetarako
BERA	18.727 €	2 langile informazio eta turismo bulegorako
BERTIZARANA	10.060 €	langile bat hainbat lanetarako
DONAMARIA	14.760 €	3 langile labadero eta Herriko Etxeko lanetarako
DONEZTEBE	29.020 €	6 langile turismo gune eta bertze lanetarako
ERATSUN	10.576 €	3 langile herrian egokitze lanak egiteko
ETXALAR	18.900 €	7 langile mantenimendu lanetarako
EZKURRA	7.312 €	2 langile autobusaren markesina eraikitzeko
IGANTZI	12.443 €	2 langile igerilekurako eta bat garbiketarako
ITUREN	13.784 €	2 langile bidean lanak egiteko
LEITZA	17.820 €	7 langile Haur Txokorako eta bat administrazioarako
LESAKA	28.188 €	langile bat turismorako eta bat zerbitzu ugarietarako
OITZ	14.070 €	3 langile mantenimendu lanetarako
SUNBILLA	12.995 €	3 langile eskolako jangelarako
URDAZUBI	9.790 €	langile bat egokitze eta garbiketa lanetarako
URROTZ	12.460 €	4 langile herriko lanak egiteko
ZUBIETA	14.530 €	2 langile errotarako
ZUGARRAMURDI	11.247 €	langile bat egokitze lanetarako
KONTZEJU...	DIRULAGUNTZA	ZERTARAKO
LEGASA	11.620 €	2 langile garbiketa eta mantenimendurako
BIDASOA-BERROARAN	8.262 €	2 langile oihaneko lanetarako
MALERREKA	11.408 €	2 langile: Bai Euskarari kanpaina eta kontuak egiteko
GUZTIRA	354.601 €	70 langile

Aholkularitza dietetikoa eta nutrizionala

Dieta pertsonalizatuak

Gorputz konposizioaren azterketa-analisisa-Bioinpedantzia

Elikadura heziketa:

- Ohitura osasuntsuak eta egunerokoan egileko errazota errezak
- Elikadura orokatu eta anitza
- Mantentzeko jarraitbideak

Elikadurarik egokiena osasuntsu egoteko!

Ixiar Andueza Lanz
 Itzea, 6 behea
 31780 - BERA - NAFARROA
 Tfnoa: 948 631 283
 E-mail: elikabera@hotmail.com

dietetika eta elikadura

elika

BIDE BERDEA

Eurovelo proiektuaren kontra azaldu dira trenbidearen ondoko Sunbillako auzotarrak

Sunbillako zatiari ordezeko bidea bilatzeko eskatu diote Bertizko Partzuergo Turistikoari

ttipi-ttapa

Garai bateko Tren Txikitoren bidearen inguruan bizi diren Sunbillako bizilagunak haserre daude Bertizko Partzuergo Turistikoari horretan Eurovelo proiektua sustatzen ari delako.

Felix Espelosin auzotarraren hitzetan, «40 baserrietako bizilagunek egunero erabili behar izaten dugu bide hori edonora joateko». Gaineratu duenez, «gehienak oihangintzarako eta abeltzaintzarako erabiltzen den bide hori pasatzen den lurren jabeak gara».

1978an Lau Herrietako (Sunbilla, Doneztebe, Nabarte eta Elgorriaga) Juntari baimena eman zitzaion mendi komunaletara pasabidea uzteko, «bidea egoera onean mantentzeko baldintzarekin, baina beti ere, lehentasuna eman beretan bizi direnei», dio Espelosinek. Horregatik, auzotarrek «harriduraz» hartu zuten duela bi urte bide hori Bide Berdea dela erranez Bertizko Partzuergoak egindako publikizitatea. «Hori gezurra da».

Publizitate horren hari-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Garai bateko trenaren bidea, N-121Ako obrak hasi aitzinetik.

ra, Bertizko Partzuergoarekin bildu ziren auzotarrak, eta Sunbillako zatian halako plan bat egitearen kontra zeudela azaldu zuten. «Bertze aterabide bat bilatzeko eskatu genuen». Bizilagunen erranetan, «Bide Berdeen arauak arras zorrotzak dira bizilagunekin, aziendekin eta ibilgailuekin, oinezkoen eta turismoaren mesedetan, eta horregatik, inguru horretan ordezeko bide bat bilatzea eskatu genion Partzuergoari». Sinadurak ere bildu zituzten eta publikizitatea kentzea eskatu zioten Bertizi, eta honek «kendu zuen».

Baina azken hilabe-

tean, prentsan eta telebistan berriz agertu da gaia, eta horrek auzotarren kezka eragin du. Europako Eurovelo txirindula sarearen barrenean, Irun eta Doneztebe artean 50 kilometroko zatia egiteko asmoa dago, Bertizko Partzuergo Turistikoak bultzatuta. Espelosinen arabera, «Partzuergoak euren interesei bakarrik begiratu die, eta Europatik diruz lagundutako proiektua izanik, ez dute ez kaltetuei ezta Sunbillako Udalarari ere horren berri emateko detailerik eduki, jakin badakitenean, honek zer nolako arazoak eragi-

nen dizkien bizilagun eta jabeei. Egunero-egunero behar dugu etxetik mugitzeko eta inguru zoragarri honetan bizitze-ko».

Auzotarren eskaria garbia da: «Sunbillako zatian ordezeko bide bat bila dezatela, eta bai bizilagunek baita turistek ere, harmonia onean bide honetaz gozatzeko aukera izan dezatela».

«BIDEA KONPARTITZEA POSIBLE DELA USTE DUGU»

Izaskun Goñi Bertizko Partzuergo Turistiko-ko kudeatzailearen hitzetan, ordea, gaiak «nahasmena» eragin du:

«Bide Berdeetan motor-dun ibilgailuak ezin dira ibili erraz behin, baina ez da egia. Bidea debekatuko ote zaien pentsatzeak kezka sortzen du auzotarrengan, baina ez da horrela». «Bidea konpartitzea posible dela uste dugu».

Gaineratu digunez, «deus ere ez da finkoa». «Frantzia Partzuergo-arekin harremanetan jarri zen hemengo zatia guk kudeatzeko, eta guri interesgarria iruditu eta Europan aurkeztu genuen proposamena». Oraingoz, «ez da deus erabaki», Goñik erran digunez, uda ondotik egingen da. Behin behineko proiektu bat dela ere nabarmendu dio Ttipi-Ttapan.

Hedabideetan atera den informazioaren harira, Goñik Partzuergo ez den bertze iturri bate-tik atera dela aipatu du, «guk ez genuen horren berri eman, ez delako deus ere finkoa, baina ez dugu inongo arazorik informazioa emateko».

Joan den astean Partzuergoko arduradunak eta auzotarrak bilera egitekoak ziren, baina le- rro hauek idazterakoan ez genuen bilera horren berririk.

BERA Zere inguru klase guzietako irakleak (zomarra, zinnarra, arnizarra, kukuxa...) eta arrotzi zurgatuz garbitu nahi baduzu, deitai Ternilla eta Pipien tratamenduak

gorEKO Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 626 567 • Zelen, 40 A • BERA

XIFRE

AKTIBO 1 • BERA
Moztu 948 627 400

ERROTAZAR
HARATEGIA

Eztegara, 3 • BERA • Tel./Faxa 948 630 088

SUNBILLA

Motorzaleen Basurde Bikers besta eginen da maiatzaren 9an eta 10ean

Basurde Bikers Bestak hirugarren edizioa izanen du aurtengoa

Jaione OTXANDORENA

Bazter aunitzetako motorzaleak elkartuko dira maiatzaren 9an eta 10ean Sunbillan, Basurde Bikers bestaren harira. Aurtengoa hirugarren edizioa izanen da, baina Sunbillan egiten den lehenbiziko aldia da, aitzineko biak Donezteben egin baitira.

Maiatzaren 9an, larunbat goizean, hasiko dira ekitaldiak. 11:00etan izen emateko epea zabalduko da. 13:00etan motorren akrobazia ikuskizuna izanen da. 13:30ean bazkaria izanen dute, Argentina-ko jakia, hain zuzen. Aipatu, bazkaltzera joateko sarrerak herriko eta inguruko ostatuetan daudela salgai, 20 eurotan.

Bazkalondoan segida izanen du besta eta zozketak eta jokuek eginen dira. Ilunabarrean, 20:00etan berriz ere motorren akrobazia ikuskizuna izanen da eta



ARGAZKIA: BEATRIZ ETXEBESTE

Motor andana ikusiko ditugu maiatzaren 9an eta 10ean herriko karriketan.

21:00etan afaltzera joanen dira. Egunari behar bezalako akabera emateko, 23:30etik aitzinera kontzertuak izanen dira. Bertzeak bertze, Cheesy Poofs taldeak joko du. Antolatzaileek ostatu bat ere paratuko dute.

Igandean, gosaltzeko elkartuko dira. 12:00etan eskualdean barna motorrekin ibilaldi bat eginen dute eta horrekin akitutzat emanen dute aurtengo Basurde Bikers besta.

eren dute aurtengo Basurde Bikers besta.

Erregularitasun saria Lizun gaztarentzat

Apirilaren 15ean Ordizian (Gipuzkoa) egindako Artzain Egunarekin hasi zuen Idiazabalgo gaztak denboraldi berria. Gisa berean, orduan banatu zen Idiazabalgo jatorri izenak banatzen duen erregularitasun eta kalitate sa-

ria ere, eta azken urteotan bezala, aurten ere Epetxenekobordako Lizun gaztandegjarentzat izan zen. Sari bera jaso zuen apirilaren 22an Iruñan egin zen Nafarroako gazta denboraldiaren hasierako ekitaldian.

Jaunartzeak

Maiatzaren 10ean, herriko bortz neska-mutikoren Jaunartzea eginen da.

EUSKARA

Profesional euskaldunen gida berritu du UEMAK

ttipi-ttapa

UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak profesional euskaldunen gida erabat berritu du. Euskaraz bizi nahi duten udalei eta herritarrei begira, tresnak, bitartekoak, baliabideak eta bertzelakoak eskaintzen ditu UEMAREN Profesional Euskaldunen gidak Internet bidez. Gida orain urte batzuk egin zen, baina orain osatu egin dute, profesionalen kopurua bortz aldiz haundituz. Gaur egun, 306 dira zerbitzua ahoz eta idatziz euskaraz eskaini eta gidan izena eman duten denetarikoko profesional eta enpresak. Gida kontsultatzeko zein izena emateko, UEMAREN webgunera jo behar da -www.ue-ma.org-, *Profesional euskaldunak* izeneko atalean.

behetik

Añorga-Ixiki, 14
T. 943 363 781
671 073 888

www.behetik.com

Eskailerak igotzea... ez da oztopo!



plataformak • igogailu bereziak • ahulki bereziak...

DONEZTEBE

Udaberriko Feria antolatu du Udalak maiatzaren 8rako

Malerrekako III. Ahari lehiaketa eta artisauen azoka egingen dira

ttipi-ttapa

Cedema Garalur eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz, Udaberriko Feria antolatu du Udalak maiatzaren 8rako.

11:00-13:00 Merkatuko Plazan, **Ahari Lehiaketa**.

10:00-14:00 eskualdeko **artisauen erakusketa**.

13:30ean **sari bana-keta**.

III. AHARI LEHIAKETA

Udaberriko Feria egunean egingen da Ahari Lehiaketaren hirugarren edizioa ere. Latxa arrazako ahari lehiaketa izanen da, Malerrekako baserriarrei bideratua.

Artzain bakoitzak nahi adina ahari aurkeztu ahal izanen ditu, baina horretarako 11:00etarako Merkatuko Plazara eraman beharko ditu. Sei sari emanen dira, hiru mutur gorriendako eta berteze hiru mutur beltzendako. Sariak bi kasuetan berdinak izanen dira: 120 euro irabazleentzat; 70 euro bigarren sailkatuentzat eta 50 euro hirugarrenentzat.

Merkatarien kanpaina

Doneztebarrak Merka-

tari Elkartearen ekime-nez, apirilaren 15az geroztik egiten ari den Udaberriko Kanpaina, ortzegun honetan, apirilak 30, akituko da. Bitartean, elkarteko bezeroak 2.000 euroko erosketa txartelen zozketan sartuko dira. Zehazki, 1.000 euroko erosketa bonoa; 500 eurokoa eta 100 euroko borts erosketa bale dira zozketatuko direnak, sei eurotik goitiko erosketa egingen dutenen artean. Zozketa larunbat hone-

tan, maiatzak 2, egingen da Santaluzia Plazan, 20:30ean. Jendaurrean egingen da.

Zozketatik zazpi izen aterako dituzte lehendabizi, eta horiek izanen dira, hurrenez hurren, sari nagusitik hasita baleen irabazleak. Halere, bertze zazpiordezkoizen ere aterako dituzte, eta maiatzaren 7ko eguerdia bitarte elkarteak hasierako sarituekin harremanetan egotea lortzen ez badu, ordezeko hauek

izanen dira saria eramanen dutenak. Irabazleek maiatzaren 30a bitarte izanen dute erosketa baleak gastatzeko aukera.

Bazkidearen Eguna Kasinoan

La Union Kasinoan Bazkidearen Eguna egingen dute maiatzaren 16an. Bazkideak afaltzeko elkartuko dira, baina horretarako maiatzaren 13a baino lehen izena eman behar da Titi ostatuan, 10 euro utziz.



PERTSONAIA

Iñaki LIZASO

Sei hilabeteren ondotik entrenatzen hasi da berriz

Joan den urteko urriaren 16an hautsi zuen Iñaki Lizaso Doneztebeko erremontistak eskuineko sorbalda-ko tendoia eta bihamunean operatu zuten. Geroztik, partidarik jokatu gabe egon behar izan du, bertzeak bertze, «penarekin» baina Binakako Erremonte Txapelketa jokatzeko aukerarik gabe. Hortaz, 2008an ezin izan zuen 2007an Urrizarekin lortutako garaipena errepikatu, nahiz eta favoritoen artean zeuden. Sei hilabeteren ondotik, ordea, Doneztebeko atzelariaren errekuperazioa bide onetik doala dirudi, eta horren lekuko, dagoeneko entrenamenduetara itzuli da Lizaso.



UTZITAKO ARGAZKIA

Zeharbidean obrak egiteko elkarlan sinadura

Aitzineko alean iragarri bezala, Nafarroako Gobernuaketa Udalak zeharbidea moldatzeko elkarlan hitzarmena onartu zuten martxoaren 16an. Hilabete berandago, ordea, apirilaren 16an, akordioa sinatu zuten Iruñian. Hala, 393.748,06 euroko aurrekontua duen obratik, 282.408,47 euro bideratuko ditu Gobernuak. Argazkian Miguel San Miguel alkatea eta Laura Alba Herrilan kontseilaria ageri dira, sinadura ekitaldian. Hitzarmenaren arabera, eskola ondoan biribilgune bat egingen da trafikoa hobetzeko. Autobus geltokia ere tokiz aldatuko da eta biribilgune berriaren ondoan jarriko da.

Gure Horagia
Nuestra Carne

arropak - maindireak
mantak - nordikoak
toallak - kortinak
alfonbrak

Bera
Goya

Albarrak, 3 • Tel: 948 630 083

14 logela bainu eta TBrekin
Zalain auzoa z/g
Tfnoa: 948 63 09 67
BERA

ITUREN

Ingelesa ikasteko programa batean parte hartuko dute 5. eta 6. mailako ikasleek Irunberrin

Maiatzaren 4tik 8ra *English week* proiektua landuko dute

Arkaitz MINDEGIA

Maiatzaren 4tik 8ra bosgarren eta seigarren mailako 9 ikaslek, Beintza-Labaien eta Eratsungo 4k eta Almandozko 5 ikaslek, Irunberriko *English week* proiektuaren barrenean, ingelesez gozatzeko eta ikasteko aukera izanen dute. Di-kastillo, Leitza eta Arrozko taldeekin elkartuko dira, gutxi gorabehera 50 bat lagun.

Aste guztian hainbat ekitaldi egiteko aukera izanen dute; goizez klaseak izanen dituzte eta arratsalde, karaokea, gilerleku estalia, bisita gi-

datuak, ordenagailuak, eskulanak, jokuak, dantza... Irteera honen helburu nagusia ingelesez gozatu eta beste eskolako ikasleekin harremana izatea da.

Saridun bila

Urte osoan sortzen diren gastuei aurre egiteko boletoak jarri zituen salgai Guraso Elkarteak. Eskolako haurrak etxetik, familia eta lagun artean lan haundia egin zuten boletoak saltzen eta apirilaren 8an zozketa egin zuten eskolan.

Zenbaki sarituak honako hauek izan ziren:



ARGAZKIA: MIXEL GEREKA

Ituren, Beintza-Labaien, Eratsun eta Almandozko eskoletako 19 ikasle eta bi irakasle hauek joanen dira Irunberrira hurrengo astean.

lehenengo saria –Altxu-nea erretegiaren bi lagunendako afaria– 391 zenbakiarentzat; bigarrena –bi botil txapan– 715arentzat eta hirugarrena –zerrikume bat– 653 zenbakiarentzat. Berri hau idazterakoan oraindik ez zen irabazlerik agertua, beraz, begiratu ongi boletoak eta zenbaki saritua esku artean baduzu, deitu telefono hauetara: 656 770058, 676 396291 edo 948 451554ra (Eskola).

Lerro hauen bidez, Guraso Elkarteak eskerak eman nahi dizkie parte hartu duten guztiei.

Maiatzaren 16an gaupasa

Aitzineko alean iragarri bezala, maiatzaren 16an gaupasa egingen da Ibintza Kultur Taldeak antolatuta. 21:30ean afaria egingen da Herriko Plazan eta 00:30ean Laiotz taldearekin dantzaldia izanen da.

Afarirako txartelak 23 eurotan salgai paratu dituzte antolatzaileek: Ituren Ostatuan, Ariztegi Harategian, Aurtizko Ostatuan, Zubietako Errandonea, Elgorriagako Herriko Etxean eta Doneztebeko Ekaitza eta Titi ostatuetan.

Birziklapen tailerra

Guraso Elkarteak antolatuta, birziklapen tailerrak egiten ari dira eskolakoek. «*Tailer horretako oinarritzko materiala, zaborretara botatzen dugunetik hartuko dugu, eta horrekin hainbat gauza sortu*». Hala azaldu dute Guraso Elkartetik, eta «*ez deus erosteko*» ere adierazi dute. Haur Hezkuntzakoek joan den ortzirean egin zuten tailerra eta Lehen Hezkuntzakoak ortzegunean, apirilak 30, aritzekoak dira, arratsaldeko eskola orduetan.



ARGAZKIAK: BEATRIZ MIKEO

Aste Santuko oporren aitzinetik Ederki pasatu zuten eskolako irakasle, ikasle eta gurasoek, guztiek elkarrekin, Aste Santuko oporrak hartu aitzinetik eskolan egindako ekitaldietan. Herri kirolak, zozketa, gosari eder bat... Adin guztietakoek gozatu zuten.

LEGARRA

Tel/Faxa: 948 63 70 30
Albistur, 9 • LESAKA

DESKONTUAK

Produktu batzuetan kolore baikoitzak bere deskontua du:

- -60% eta -50%
- -30%
- -40% oparietan
- -20% oparietan

t tipi
t tapa

☎ (0034) 948 635458

DONAMARIA

Malerrekako II. Gazte Eguna egingen da larunbat honetan Donamarian

Hitzaldia, herri kirolak, bertso bazkaria, kontzertuak, dantzaldia... izanen dira

ttipi-ttapa

Malerrekako Gazte Asanbladakantolatuta Gazte Eguna egingen da larunbat honetan, maiatzak 2. Aurtengoa bigarren edizioa izanen da eta joan den urtean bezala, Donamarian egingen da. Iazko bestak izan zuen arrakasta ikusita aurten berriz egitea erabaki du Gazte Asanbladak. Inguruko gazteak elkartzeko, goizean goizetik hasita gisa guztietako ekitaldiak prestatu dituzte.

EGITARAUA

10:00etan **hitzaldia**:

Krisia eta kapitalismoa gaiaren inguruan.

11:30ean **herri kirolak** denek parte hartzeko.

13:00etan **dantza** aereoak.

14:00etan **bertso bazkaria**, Iker Gorosterraz iturendarra, Jon Elizetxe garzaindarra, Ander Fuentes *Iturri* zubietarra eta Maia-

len Belarra doneztebarrarekin.

18:00etan **kalejira** soinutxua.

21:00etan **txalapartariak**.

21:30ean **kontzertuak** talde hauekin: Ufetsuek (Erratzu), Mugalariak (Lekaroz, Elizondo, Donamaria eta Goizueta, Txarralde (Agoitz) eta Aizkorerauntsia (Urdazubi, Zugarramurdi eta Elizondo).

Ondotik **gaupasa** Garraxi taldearekin (Leitza, Ultzama eta Ituren).

ANTOLATZAILEEN OHARRAK

Bertso bazkarian parte hartu nahi duenak sarrera aitzinetik erosi beharko du, Doneztebeko Ekaitza ostatuan edo Donamariako ostatuan. 12 eurotan salgai daude. Horrez gain, ilunabarrean, 20:00etatik aitzinera, ogitartekoak salgai egonen dira.

Bertzalde, antolatzaile-



ARGAZIAK: JAIONE

Joan den urtean ere, gisa guztietako ekitaldiekin gozatu zuten gazteek.



ARGAZKIA: IÑAKI TELLETXEA

Hiru herritar udan hainbat lan egiteko

Nafarroako Gobernuako Enplegu Zerbitzutik dirulaguntza hartuko aurrean ere Udalak, guztira 14.750 euro. Azken urteotan bezala, subentzio horrekin langabezia dauden hiru herritar kontratatuko dira. Ekainean, uztailan eta abuztuan herrian hainbat lan egin beharko dituzte, horien artean Askarragako garbategia, Artzeko garbategia eta abar. Argazkian Gazteluko garbategia ageri da. Joan den urtean, dirulaguntza honen bitartez, langabeek egin zuten lanetako bat da. Moldatu eta itxuraberritu egin zuten.

ek ez dute sarrerarik ko-
bratuko kontzertuetara-
ko, baina borondatea es-
kertzekoa izanen da.

Liburutegia zabalik

Aste Santuko opo-
rrak akituta, Liburute-

giak berriz ere zabaldu
ditu ateak. Ikasurtea bu-
katu arte, irekia egonen
da 18:30etik 20:00etara.

suteia

igogailuen instalazioa

Erlategi Plaza, 8 bajo ELIZONDO (Na)
Tel.-Fax: 948 452557 M: 649 699 820/810
suteia@suteia.com



Gremio guztiak
koordinatuz eta
prekariaren arduraz
hantuz, zure igogailu
instalatzeko diruak

BEINTZA-LABAIEN

Urteroko besta egingen du larunbat honetan Itturondo elkarteak

Aizkora apustuak, bazkaria eta antzerkia izanen dira

ttipi-ttapa

Itturondo Elkarteak hainbat besta antolatzen ditu urtean zehar, eta horietako bat, larunbat honetan, maiztak 2, izanen da. Ohiko ekitaldiei hutsik egin gabe, eguerdian hasiko da besta, herritarren arteko aizkora apustuekin. Hainbat desafio jokatu dira 13:00-etatik aurrera.

Aizkora saioa akitutakoan, bazkaria izanen da eta ondotik, Iruiritako Francisco akordeoilariak alaituko ditu bazterrak. Afaltzeko tenorea ailegatu bitartean irauen du musika doinuak.

ANTZERKIA ILUNABARREAN

Egun berean, larunbatean, Nafarroako Go-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aizkora apustuak hutsik ezin egin duten ekitaldiak dira Beintza-Labaienen.

bernuko Kultura eta Turismo Departamentuak antolatzen duen Udaberriko Biraren barne, antzerki bat ikusteko aukera izanen da. Zirkua Zirkus taldeak *Ilargian* izeneko antzezla-

na eskainiko du 19:00-etan.

Iturritik depositurako hodi berria

Iturritik depositura ura garraiatzeko hodi

berria paratu da. Azken 60 urteotan egon den hodia zaharkitua gelditua zen, eta horregatik erabaki zuen Udalak berria paratzea.

Obra hauek egiteak 30.938 euroko gastua

eragin du, baina Nafarroako Gobernuak aurrekontuaren %90 diruz lagunduko du, 24.003 euro emanez. Sunbillako Sasoi enpresak egin ditu lanak eta duela hiru aste akitu zituen.

Dirulaguntza Enplegu Bulegotik

Nafarroako Gobernuak Enplegu Zerbitzuaren bitartez, herriko lanetarako langileak kontratatzeko urtero ematen duen dirulaguntza deialdiaren barne, 13.150 euro jasoko ditu Udalak.

Diru horrekin sei langile hartuko dira eta labaderoan, eskolan eta udal pilotalekuan moldatze lanak egin behar harko dituzte.

1951tik lentzeria-etxea
Casa Cambra

edredoi funulak
albornoak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak

2009ko udaberri-udako kolekzio berria

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

EZKURRA

Baserri eta borden argazkiekin kaleratuko den liburuak 5.400 euroko laguntza izanen du

Liburuaz gain argazkien DVD bat ere argitaratuko da

Fernando ETXEBERRIA

Ezkurrako baserri eta borden argazki bilteta liburuak sortuko dituen gastuei aurre egiteko 5.400 euro jasoko dira. Nafarroako Kutxak hala jakinarazi berri dio Udalari, eta horren arabera, *Zuk aukeratu, zuk erabaki* programaren bidez, diru kopuru hori emanen zaio Udalari Fernando Etxeberria eta Juan Jesus Sukunzak egin duten liburuaren gastuak ordaintzeko.

Hasiera batean, Ezkurrako baserri eta borden izenak eta argazkiak biltzea zen helburua, informazioa datuen laburpen txiki batekin osatuz. Baina Nafarroako Artxibo Probintzialean dokumentazio interesgarria aurkitu zen baserri eta borden izenen inguruan, eta horrekin informazio osatuagoa kaleratuko da. Artxibon 1646tik 1796ra bitarteko datuak kontsultatu genituenean datu gehigarriak topatu genituen.

**ETXEEN IZENAK
DENBORAREKIN
ALDATUAK**

Denborarekin etxeen izenak aldatu egin dira ere ikusi dugu. Bi



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Liburuak eta DVDak azal hau edukiko dute.

adibide nahikoak dira hala dela ikusteko: gaur egun Ertikoetxea dena, bi etheen artean egoteagatik Erdikoetxea zela uste genuen. Baina hori ezinezkoa dela ikusi dugu. Izan ere, horietako bat, eskola, 1914koa

da. Gaian sakonduz, konturatu gara, bere garaian, Urrutikoetxea zela, eta XVII. mendean izen hori zuela. Herri hizkeran ohikoa den bezala, hitz eta silabak jan egin ziren eta denborarekin gaur egungo ize-

na hartu du.

Beste adibidea Penaren da, frontoiaren ondoko etxearena, alegia. Komentzaneari buruzko 1888ko idatzi batean ageri denez, etxe horren mendebaldean Don Clemente Ladron

de Cegamaren Benta zegoen, Palazioko ja-bearena. 1726ko dokumentuetan Benta izena ageri da baina urteekin Penta bilakatu zen.

IZENA ETA ARGAZKIAK

Etheen izenekin batera bakoitzaren bi argazki ere bildu dira liburuan, balizko aldaketekin eta datekin. Hori egitea ez zegoen hasierako helburuen artean.

Datu adierazgarri gisa, aipatu, 79 borda dau dela, eta horrek garai batean, herritar guztiek ardiak zituztela edo artzaintzara dedikatzen zirela adierazten du.

Argazkiak osatze aldera, eraikinen kokapen zehatza ageri den mapa ere gehitu dugu. Etor-kizunari begira, lan zabalago bat ere egin nahi dugu, orokorragoa, paraje, bide, etxe, borda eta baserriak ongi kokatuz, nahiz eta batzuk desagertu diren edo desagertzear dauden.

Liburuaz gain, DVD bat ere argitaratuko da, argazki gehiagorekin. Hartara, borden egungo egoera zein den ikusteko aukera izanen da.

Bai liburu eta bai DVDa ere ekainean kaleratuko dira.

egoi bardot obregozo arkitektoa
679649789 elizondo - braulio iriarte 33, 1ºD - 31700
948250371 iruñea - irabeko monastegia 62, 4ºC - 31011

BEINTZAKO
OSTATUA

T: 948 45 00 14

ORBELA

ttipi
ttapa

www.ttipi.net

info@ttipi.net

☎ (0034) 948635458

UDALAK

Otsaileko uholdeen kalteak osorik Gobernuak ordaintzeko eskatu dute eskualdeko alkateek

Baztan, Bortziriak, Malerreka eta Sunbillan 1,6 milioi euroko gastuak eragin zituzten euriteek

ttiipi-ttapa

Baztan, Bortziriak eta Malerrekako 14 herrietako ordezkariak bat egin zuten apirilaren 21ean Etxalarren, Nafarroako Gobernuari otsaileko uholdeek eragindako kalteak osotasunean ordain dituzan eskatzerako. Patxiku Irisarri Etxalarko alkatea emandako datuen arabera, otsailaren 11 eta 12ko uholdeek 1,6 milioi euro inguruko gastuak eragin zituzten. Handienak Baztanen, milioi bat euro, kontuan hartu behar baita hedaturaz ere Nafarroako herririk handiena dela; **Etxalar** eta **Lesakan**, bakoitzean, 102.000 euroko gastuak eragin zituen; **Beran** 91.000 euro, **Arantzan** 62.000 euro, **Igantzin** 60.000 euro, **Zubietan** 54.000 euro, **Sunbillan** (Bidasoa Berroarango Junta barne dela) 49.000 euro, **Donamarian** 24.000 euro, **Iturenen** 19.000 euro, **Oitzen** 12.000 euro eta **Urrotzen** 5.000 euro. **Eratsunen**, oraindik ongi zehaz-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Ezkerretik hasita, jarrita: Patxiku Mitxilea Zubietako alkatea, Jose Miguel Zelaleta Bidasoa Berroarango Juntako ordezkaria, Patxiku Irisarri Etxalarko alkatea eta Virginia Aleman Baztango alkatea. Zutik, ezkerretik eskuinera: Pedro Deskarra Eratsungo alkatea, Koldo Erkizia Lesakako alkatea, Paco Errandonea Sunbillako alkatea, Josu Irtzoki Berako alkatea, Iñaki Baleztena Donamariako zinegotzia, Ainara Amoros Arantzako zinegotzia, Mikel Petrirena Iturenko alkatea, Santi Aldako Baztango zinegotzia eta Alberto San Miguel Oizko alkatea.

tu gabe dute gastu osoa.

Duela bi urteko esperientzia kontuan hartuz, kalteak neurtzen hasi ziren herrietan eta Toki Administrazio eta Ingurumen Departamentutara memoriak bidaltzen hasi ziren, jakinaren gainean egoteko eta neurriak hartzeko. Gobernuak Lekarozen mar-

txoaren 2an egin zuen osoko bilkuran ere eman zuten egoeraren berri alkateek, baina ez zuten erantzun argirik lortu. Denbora pasatu da eta herrietan presazko lan batzuk egin dituzte, baina erantzunik ez denez, herri ordezkariak biltzea erabaki dute.

Alkate eta zinegotziek ai-

patu zutenenez, «*momentu honetan Hirurteko Planak eta Zapateroren laguntzak martxan daude bertze alorretan, baina gure ustez egoera berezi hauek neurri bereziak behar dituzte, eta orain dela bi urte bezala, %100ean finantziatu behar harko ziren kalte guziak, nahiz eta orduan kasu*

guzietan ez zen horrela gertatu. Horrela eginez gero, orain bi urtekoa ez zela mugimendu elektoralak izan konfirmatzeko balioko luke».

Krisi garai hauetan Udaletxeei esku bat botatzea zilegi iruditzen zaie udal ordezkariari, «*izan ere hirigintzatik eta menditik genituen diru sarre-rak izugarri murriztu zaizkigu eta zama extra hauek ezin ditugu gure bizkar gainean hartu».* Hala, Koldo Erkizia Lesakako alkatearen arabera, «*dirulaguntzarik ez bada, Igantzi eta Lesaka lotzen dituen errepi-dea, ibilgailuen harat-honat handia duena, ixtea aztertzen ari gara, hagitaz egoera kaxkarrean dagoelako».*

Otsailaren 27an, Na Bai taldeak Lege Proposamena agertu zen Nafarroako Parlamentuko Boletinean, uholdeek kalteetako aldeko neurriak hartzeko. Lege proposamen hori apirilaren 23an eztabaidatzeko zen Parlamentuan.

STIHL eta VIKING aukeratzen duzunean makinarik hoberena baino askoz ere gehiago eskuratuko duzu.

Zure lorategirako behar duzun guztia zuregandik oso hurbil dagoen STIHL eta VIKING-en Banatzaile ofizialean aurkituko duzu

BANATZAILEA

José Luis San Miguel

DONEZTEBE • Tel./Fax.: 948 450 711

ARANO

Oraingo bazkide berri gehiago ez onartzea erabaki du ehiztarien elkarteak

Horrez gain, kuota bere horretan mantenduko dute

Ainhoa ANSA

Martxoaren 28an, larunbatarekin, herriko San Roke Elkartearen bildu zen herriko ehiztarien elkarteak. 40 ehiztari inguru bildu ziren baztarrean hainbat gai aztertzeko. Urteko kontuak onartzea, orain arteko kuota bere horretan mantentzea eta momentuz bazkide berri gehiago ez onartzea erabaki ziren, besteak beste. Horretaz aparte, ohiko gaietaz hitz egin zen; postuen errotazioaz, garbiketaz eta postua bera egiteko epeaz, esate baterako.

Santiyuk prestatzen hasiak

Festen batzordeak Santiyuk antolatzekeo aurreneko bilera egin

zuen lehengo astean. Gutxi batzuk elkartu baziren ere, herriko jaien

egitarauaren aurreneko zirriborroa eginxe gelditu zen. Aurrerago egin-

go diren bileren deialdiara erne egon eta animatu!



ARTXIBOKO ARGAZKIA

'Nafarroari' kantaldian herriko kantariak

Elizondoko Lur aretoan apirilaren 19an egin zen *Nafarroari* izeneko kantaldian parte hartu zuten herriko Ansa Ahizpek. Inguruko kanta bat kantatzeko eskatu zieten antolatzaileek eta horregatik aukeratu zuten *Goizuetan* kanta ezaguna. Nafarroa osoko -hasi Tuteratik eta Itsasuraino- 24 kantari bildu ziren Nafarroari kantatzeko.

Larreen erretzea arazorik gabe

Larreak erretzeko epea bukatu zen lehengo astean eta auzolanean elkartu zen koadrila bat. Inolako arazorik gabe bukatu zituzten lanak, izan ere, Goizuetako su-hiltzaileak jakinarenean egonagatik ere, haien beharrik ez zuten izan.

Udalak ez du zorrik

Espainiako Gobernuak Ogasun Ministerioak udalen zorpetze mailen inguruan apiril hasieran kaleratu dituen datuen arabera, Arano Udalak ez du zorrik banketxeekin. 2008ko abenduaren 31ko datuak dira.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

GOIZUETA

Asteburu honetako Txinoko Jaiek irekiko dute aurtengo fiesten egutegia

Larunbat goizean botako den itxaferoarekin hasiko dira ofizialki

Esteban AROTZENA

Abuztuko Amabirjina eta Sanaustinekin batera, herriko fiesten zirkuitua osatzen duten Txino auzoko jaiak asteburu honetan ospatuko dira.

Ostiralean, 22:30ean Zubiondo tabernan mus txapelketa jokatu da. Sari potoloak daude lau lehenengoentzat. Jaiari hasiera ofiziala emanen dion itxaferoa larunbatean 11:00etan botako du auzoko Fernando gazteak, eta ondoren, Euskal Herri guziko hainbat herri lehiatzen di-

ren Xiba euskal jokoen txapelketako kanporaketa jokatu da. Aurreko urteetan bezain jendetsua izanen den herri bazkariak, Patxi 1, 2, 3ren Dantza Pikoren dantzaldiak eta arratsoko kontzertuak (Emon eta Txurrustada taldeak) emanen dio bukaera jai programatuari. Besteak hurrengo egunera arte iraungo du seguru aski.

Gazte Asanblada da jai hauen antolatzailea, auzoko tabernarien, Umore Ona Elkartearen eta Udalarekin laguntzarekin.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Txapelak Belate eta Zizurreko txapelketetan

Beste behin txapelekin etxeratu dira pilotari gaztetxoak. Belateko txapelketan, esaterako, aurrebenjaminen 2. mailan, Eñaut eta Manex Apezetxea eta Ander Mujikak 18-14 irabazi zuten partida; benjaminen 3. mailan, Ioritz Elizegi eta Aitor Aizkorbek 18-5 irabazi zuten eta lehen mailan Antton Apezetxea eta Iker Salaberriak 18-9. Alebinen 3. mailan, Mikel Uitz eta Ander Apezetxeak 18-9 irabazi zuten. Egun berean Zizurreko lau t'erdiko finalak ere jokatu behar izan zituzten herriko gaztetxoek. 2000koen mailan, Antton Apezetxeak 16-14 irabazi zuen. 1999koetan, ordea, Iker Salaberriak galdu egin zuen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Irazu eta Gaztelumendirekin bertso-barrikotea Iskibin

Dotore aski eraberritutako Iskibi kanpinak ostiral honetan irekiko ditu ateak irailaren bukaera arte iraungo duen denboraldian. Hilaren 8rako, berriz, bertso-afaria antolatu dute Irazu eta Beñat Gaztelumendirekin. Bestalde, azken bi denboraldietan ez bezala, ekainaren erditik aurrera igerilekua irekia egonen da aurtan. Honek indar handia emanen dio kanpinari, zalantzarik gabe. www.iskibi.comen ikus liteke kanpinari buruzko informazio guztia.



Baialtzinikin...

Jon Apezetxeak bi partida jokatu dituela Kaliforniako Bakersfield hirian maiatzaren 21etik ekainaren 2a bitartean? Goñi II.a, Goñi III.a eta Eulate izanen ditu bidai-lagun Goizuetako pilotariak.

COLCHONES ATSEDEN
KOLTXOI FABRIKA



Zure ametsen fabrika

ESTREINALDI PLANA ZURE AMETSEN FABRIKAN
Aukera ezazu Atsedén estreinaldi plana edo ...

BASIC PLANA: Koltxoia + burukoia: **jaso zure oparia**
MEDIUM PLANA: Koltxoia + somierra + burukoia: **%5eko deskontua**
PLATINUM PLANA: Koltxoia + kanape toleskorra edo ohatze artikulatua + burukoia: **%10eko deskontua**
GOLD PLANA: Viscolaxtic Koltxoia + kanape toleskorra edo ohe artikulatua + viscolaxtic burukoia + edredoi nordikoa + funda nordikoa: **%15eko deskontua**

12 hilabete arte interesik gabe ...finantzaketa bikaina
www.colchonesatseden.com
Aprobetxatu promozioa

Eta finantzaketa guztia gure botiko prezioetan, lantegiko prezioetan

Iruña-Huesca errep. • 948 346 000 • TORRES DE ELORZ • 948 346 000 • BILBAO • Iruñea, 11 • 948 346 066 MENDEBALDEA

LEITZA

Marka pertsonal berria ezarri du Josetxo Urrutiak zilindro zaharrarekin

Sei jasoaldi egin dizkio 163 kiloko zilindro zaharrari

Asier IMAZ

Marka ahalegina egin ten saiatu zen Josetxo Urrutia apirilaren 19an Hendaian (Lapurdi) 163 kiloko zilindro zaharrarekin, eta bai lortu ere: sei jasoaldi egin zituen. Marka ahaleginaren aurretik, pisatu egin behar izan zuen Urrutiak eta 74 kilo pisatu zituen. Horrenbestez, bere pisua bi aldiz eta arroba bat gehiago izan ere, berez, 163 kiloko zilindro zaharra zuen jasotzekoa, baina zama handixeagoa jarri zioten ez zelako heltzen arauzko pisura, eta 163,800 kilo jarri zizkioten.

Bost minutuko txanda egin eta sei aldiz altxata, marka pertsonala ezarri zuen Urrutiak, homologatua, dopin kontrola eta guzti. Lehen jasoaldia 11 segundoz egin zuen; bigarrena lehen minutuan; hirugarrena 2:02an; laugarren jasoaldia 2:55ean; bosgarrena 3:55ean eta seigarren eta azken jasoaldia 4:50ean, bost minutu betetzeko 10 segundoren faltan.

Pilota kontuak

Eskuz Banakako Txapelketako final-laurdeneko partida jokatu du larunbat honetan, maiatzak 2, Bengoetxea VI.ak. Patxi Ruizen kontra ariko da Iruñeko Labrit pilotalekuan. Partida hau ikusteko ordaindu behar dena 40 euro, 25 eta 20 euro izanena da, lekuaren arabera.

Bestalde, ebakuntzaren ondotik, sendatze bidean da Barriola. Eskuin belauneko atzeko lotailu gurutzatua hautsi eta apirilaren 15ean egin zioten ebakuntza, eta Jesus Alfarro sendagileak dena «espero bezala» irten zela aipatu zuen. Itzulerara epea jartzea ezinezkoa den arren, Lau t'erdiko txapelketarako osatuta egotea da helburua.

Kultur Astea

Maiatzaren 18an hasi eta 31 arte luzatuko da aurtengo Kultur Astea. XXXI.edizioa izanen da baina egitarauaren berri zehatza hurrengo alean emanen dugu.



ARGAZKIA: KOLDO ALDUNTZIN

Josetxo Urrutiak 163 kiloko zilindro jaso zuen Hendaian.



ARGAZKIA: ASIER IMAZ

Euskararen Eguna jolas eta algara artean

Giro politean ospatu zuten apirilaren 8an Euskararen Eguna Amazabal institutuan. Goizean ekin zioten lanari ikasleek. Lehenik Leitza grabatutako 40 ordu filma ikusi zuten. Ez denek, izan ere, ikasle batzuk gosaria prestatzen hasiak ziren. Euskararen Egunean lortu zuten diru guztia IKA euskaltegiarentzat izaki, gosari herrikoia antolatu zuten. Sabela bete ostean, hainbat ikasle eta lagunek kontzertua eskaini zuten. Musikaren doinuetaatik urrun, beste hainbat Mus Txapelketan aritu ziren. Une politena herri kirolekin etorri zen. Ikasle eta irakasleak denek batera jolas egin zuten, gogotik eta giro politean. Sari banaketarekin eta zozketaren irabazleekin amaitu zen eguna.



ARGAZKIA: ASIER IMAZ

Bosgarren mailako antzerkia

Amazabalen Euskararen Eguna ospatzen ari ziren bitartean, Erleta Eskola-koak antzerkira joan ziren. Bosgarren mailako ikasleek *Hemen Bai Giro!!!* antzezlan aurkeztu zuten eskolako kide eta hainbat gurasoren aurrean.

ttipi
ttapa

www.ttipi.net

info@ttipi.net

☎ (0034) 948635458

ARESO

Elizako obrak ordaintzeko laguntza eskatu die apaizak herritarrei

30.300 euro gelditzen dira lanak pagatzeko

Juana Mari SAIZAR

Elizako obrak bukatzeaz dauden honetan, apaizak obraren gastuak nola dauden argitu du. Elizbarrutiak «izugarrizko ahalegina» egin omen du Aresori dirulaguntza ematean, eta hala ere, gauzak gelditzen dira ordaintzeko. Hala, apaizak herritarren laguntza eskatu du gelditzen den zatia bildu nahian.

Obraren gastua 330.000 eurokoa izan da, eta Apezpikutzatik 270.000 euro eman dituzte. Udalak bertze 9.000 euro bideratu ditu; Nafarroako Kutxaren ekarpena 12.930 eurokoa izan da, eta donazioen bidez, 7.750 euro jaso dira. Baina, oraindik 30.300 euro gelditzen dira gastu osoa ordaintzeko. Familia guztien artean zatiketa eginez gero, 350 euro dagozkio bakoitzari. Baina hori bai, askatasun guztiarekin egingen da, proposamen bat da.

Gurasoentzako hitzaldiak maiatzean

Guraso Elkartek, beste urte batez, Amaia Vazquez adituaren hitzaldiak antolatu ditu. Zalantza asko izan dituzte, diruaren arazok direla-eta, hobeto

esanda, tarifaren igotzea dela-eta, baina azkenean, lortu dute ekarzteaz.

Apirilaren 20an egin zuten lehenengo saioa, baina jendearen partehartzea oso txikia izan zen. Hortaz, ahalegin bat eskatu nahi izan du-

te «interesgarriak eta denontzako aberasgarriak» direlako. Maiatzaren 8an eta 15ean egingen dira hurrengo saioak eta Guraso Elkartetik kontuan hartzea nahi dute. 15:00-etatik 16:30era izanen dira.



ARGAZKIA: JAIONE OLAZABAL

Gazteak sagardotegian

Pazko Igandean berriro gure gazteak egun osoko festa antolatu zuten. Bazkaltzera joan ziren Astigarrako sagardotegi batera, eta gero arratsalde pasa eta goizeko ordu txikiak arte, Hernani aldean ibili ziren. Aurtengoan autobusa hartu zuten, edozer gerta ere....

TURISMOA

Natur Bideen Eguna igandean Lekunberrin

tti-pitapa

Plazaola Partzuergo Turistikoak antolatuta, Natur Bideen Eguna egingen da igandean, maiatzak 3, Lekunberrin. 9:00-etatik aurrera, natur bidea ezagutzeko hainbat ibilbide egingen dira helduentzat, 10, 14 eta 30 kilometrokoak. 12:00etan, berriz, haurrentzako 4 kilometroko beste ateraldi bat egingen da pailazoekin. Ibilbidean edariak izanen dira eta eguerditik aurrera askaria ere bai. 13:00etan kontzertua izanen da, eta 10:00etatik 13:00etara bisita gidatuak ere bai. Bestalde, 11:00-etatik 14:00etara artisautza azoka izanen da geltoki inguruan.

Txirindularien martxa

Maiatzaren 24rako, 50 kilometroko luzera eta 1.300 metroko desnibela duen martxa zirkularra antolatu du Plazaolak. Bigarren edizioa izanen da.

Turismo saria

Toki Entitate, Partzuergo Turistiko edo Instituto Publikoen atalean, Nafarroako Turismo Kontseiluak emandako *Nafarroako Erresuma* turismo saria jaso du Plazaolako Partzuergok. Maiatzaren 6an hartuko du saria.

APARAN, S.A.
BOIXOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab....

Tel: 948 456 060
 Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

Carlos Garaikoetxea
 Etxenike
 abokatua

Tfnua.: 948 581 488
 Mug.: 630 354 818

Santiago, 58 2C
 ELIZONDO

ARKUPEAK

Arkupeak elkarteko ia 100 kidek sasoiari daudela erakutsi dute

Apirilaren 16an urteroko gimnasia besta egin zuten Berako kiroldegian

ttipi-ttapa

Arkupeak Erretiratu eta Jubilatuen Elkarteak urteroko gimnasia besta egin zuen apirilaren 16an Berako Toki-Ona kiroldegian. Bera, Goizueta, Leitza, Doneztebe, Elizondo, Sunbilla eta Urdazubiko adineko kirolariak bildu ziren, urtean zehar gimnasia ikastarotetan egiten dutena erakutsi asmoz. Guzira 90 bat lagun atera ziren kiroldegiko pista gainean, baina inguruan bertze hainbat atera ziren, ariketak ikusi eta gero, Zubiondon egitekoa zuten bazkarian parte hartzeko.

Azkeneko sei edizioetan, 2004tik honat, Berako kiroldegian egin dute gimnasia besta, baina aitzinetik Iruñeko Anaitasuna eta Larribiden ere egin izan dute.

Joxe Oronoz iruritarak bazkari aitzinetik aipatu zigunez, «280 bat lagun bilduko gara

bazkarian, kopuru polita da, baina bertze urtetan gehiago ere izan gara. Bi jatetxe hartu behar izaten genituen, Zalain eta Zubiondo, eta aurten bakarrean sartu gara».

Hasteko, kirolari guzietan, ohiko aurkezpen bira egin zuten, Jabier Larralde Arizkungo txistulariaren doinuei segituz.

Segidan, **Berako** taldearen txanda izan da. Ana Larretxea aranztarra irakasle zutela, 17 emakume aritu ziren.

Gero, **Goizueta** eta **Leitzatik** etorritako kirolarien txanda izan zen, Patxi Txokarroren agindupean. Goizueatik 23 kirolari etorri ziren, eta gainera, gizaseme gehien zituena izan zen. Leitzatik bertze 15 kirolari etorri ziren.

Hirugarren ariketan, hau ere Patxi Txokarroren erranetara, lau herritako taldeak aritu dira: **Doneztebe**ko be-



deratzi emakume, **Sunbillako** zortzi lagun (zazpi emakume gizaseme bakarra) eta **Urdazubiko** lau (bi gizonetako eta bi emakumetako)

Gimnasia saioaren ondoren, Zubiondora hurbildu ziren bazkaltera. Bazkalondoa, Modesto Ordoki musikariaren doinuekin dantzatu zuten etxerako autobusa hartu aitzinetik.

Parte-hartzaileen izenak ikusteko: www.ttipi.net.



ARGAZKIAK: TTIPI-TTAPA

Goiko argazkian gimnasia besta parte hartu zutenak, eta behekoan horietako batzuk gimnasia egiten.

LINE-EN-ISO 9001
IAC
SISTEMA DE GESTIÓN DE CALIDAD CERTIFICADA
BCC-02-0199

Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelaturia, erabiltzeko prest

Alkaiaga ind. - Barrota, 8 - 23 pabiloia - LESAKA - Tfnoa: 948 631 536 - Faxa: 948 631 550

Altzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

Sorginen Museoak bere marka hautsi du Aste Santuan

Urdazubiko leizeetan, aldiz, 2.000 bisitari



ttipi-ttapa

2008ko emaitzekin alderatuz balantze positiboa lortu dute Aste Santuan Zugarramurdi-ko Sorginen Museoak eta leizeek. Iazko Aste Santuan baino %33,5 bisitari gehiago sartu ziren Zugarramurdi-ko leizeetan apirilaren 16tik 19ra. Kopuru hau 2007ko Aste Santuko aparteko emaitzei hurbildu zaie, 6.946 sarre-rra saldu baitziren orduan. Sorginen Museoan, bertaldea, iaz baino %25 bisitari gehiago izan ziren: 2.011. Aipatzekoa da, Museoak berriz ere eguneko markak hautsi dituela: Ortziral Santuan 409 sarrera, iaz baino 35 gehiago eta orain arte kopururik haundiena izan den eguna.

Besta egunak izan ziren Zugarramurdi-ko jende gehien jaso zituzten egunak: Ortzegun Santuan 348 lagun museoan eta 1.210 Zugarramurdi-ko leizeetan; Ortziral Santuan, museoan 409 eta leizeetan 1.239 lagun. Data horietatik aitzinera, bisitari kopurua murriztuz joan zen: larunbatean, 275 sarrera museoan eta 681 leizeetan; Pazko Igan-dean, 212 museoan eta 607 leizeetan; Pazko Astelehenean, 116 museoan eta 448 leizeetan. Gainerako egunetan ere eskola oporrak zirela nabaritu zen.

Urdazubin ere, kri-siagatik jende guttiago espero zen arren, Aste Santuan, ortzegunetik igandera, 2.000 bisitari sartu ziren leizeetan.

ICO - Rural Kutxa hitzarmena

Rural kutxa, ICO 2008 lerroen bidezko finantziazioan erakunde dinamikoa da, 170 milioi euro baino gehiagoko kontzesioekin.

Rural Kutxan, orain, eta

BETI

enpresa, autonomo eta partikularrak laguntzen ditugu.

ICO Pymes Lerroa
Aktibo finko berriak finantziatzeko ETEei (enpresa txiki eta ertainak) eta autonomoei.

Baldintzak:

- Gehienekoa: Inbertsioaren %100 maileruan edo leasing-ean, 1,5 milioi € gehienez.
- Epea: gehienez 10 urte eta epearen arabera (gehienez 3 urte), gabealdirako aukerarekin.
- Interes Tipoa: ICO + %1,75% erreferentzia, sehilabeteroko berrikuspenarekin.

ICO Plan Viva Lerroa
Ibilgailu berriak nahiz erabiltak finantziatzeko, pertsona fisiko, autonomo, mikroenpresa eta enpresa txiki eta ertainak.

Baldintzak:

- Epea: gehienez 5 urte, urtebeteko gehieneko gabealdiarekin.
- Interes Tipoa: lehen 10.000 € %0an, gainerakoa ICO + %2,5 erreferentziarekin.
- Komisionik gabe.

ICO Likidez Lerroa
Zirkulazioko kapitala finantziatzeko autonomo eta enpresa txiki eta ertainak.

Baldintzak:

- Zenbatekoa: gehienez 500.000 € onuradun bakoitzeko.
- Epea: 3 urte, 6 hilabeteko gabealdia barne.

Eta gainera

- ICO Emprendedores Lerroa
- ICO Crecimiento Empresarial Lerroa
- ICO Internacionalización Lerroa
- ICO Avanza Lerroa
- ICO Plan Renove Turismo Lerroa
- ICO Moratoria Pymes Lerroa
- ICO Moratoria Hipotecaria Lerroa

nire aukera

www.icotxta.com
Tel: 945 510 002

BAZTAN

Ordenantzei buruzko jardunaldiak egiten ari dira Museoan

Jorge Oteiza Museoaren Lagunen Elkartek antolatu ditu

ttipi-ttapa

Baztango Ordenantzak dituzte aztergai Jorge Oteiza Museoaren Lagunen Elkartearen ekimenez egiten ari diren jardunaldiek. Hiru saio egingen dira guztira, nahiz eta horietako bi eginak diren dagoeneko. Museoan egiten ari dira.

Apirilaren 23an *Baztango Ordenantzak atzo eta gaur* hitzaldia eskaini zuen Pedro Maria Esartek. Asteazken honetan, berriz, apirilak 29, *Ordenantzak: esperientzia eta helburuak* gaiari buruzko mahai-ingurua egitekoa zuten, bertzeak bertze, Luis Roldan, Jose Mari Ursuegi eta Juan Mari Alemanek. Azken hitzaldia, berriz, maiatzaren 6an, hurrengo asteazkenean, egingen da. *Ordenantzak: historia, legeak eta egokiera* izanen ditu hizpide Tomas Urzainkik bere hitzaldian. Aitzinekoak bezala, hau ere 19:00etan

hasiko da.

Bertzalde, aipatu, *Amaiurko Gaztelua Nafarroako Historian zehar* izeneko liburua aurkeztuko duela laster Iñaki Sagredok, Jorge Oteiza Museoaren Lagunen Elkartek gonbidatuta. Liburua gazteleraz egina da eta martxoan argitaratu zuen Sagredok. Nafarroako Erresumaren konkistari buruzko bertzelako ikuspuntu bat kontatzen da liburuan, 1522ko Amaiurko gudan oinarrituz.

Baztan Eguna Mexikon

Baztan Eguna egingen dute Mexikon bizi diren baztandarrek ortziralean. Mexikoko hiriburuko Euskal Etxean izanen da besta, eta mezarekin hasiko dute eguna. Eguerdian bazkaria egingen dute, eta ondotik, dantzaldiak, mustxapelketak eta haurrentzako jokuak izanen dira.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Ate irekien jardunaldia Elizondoko Poskonean

Elizondoko Berro auzoko Poskonea baserrian Tasubinsak duen lantegian Ate Irekien Eguna izan zuten apirilaren 21ean. Poskonean lanean ari diren 27 langileetatik %90ak ezintasunen bat dauka eta egunero joaten dira lanera edota okupazio terapiaren batera. Bertzeak bertze, Baztango berdeguneak zaintzea, garbitasuna, eraikin eta azpiegituren kontserbazio lanak eta gisako lanak egiten dituzte, Balleko Etxearendako, Gestion Ambiental Viveros y Repoblaciones de Navarra enpresarendako, Baztan Hostalarentzat, Elizondo-Lekaroz Instituirendako eta hainbat lantegirendako.

Txapeldun plater tiroketan

Enrique Bengoetxea Goñi arraioztarra Nafarroako plater tiroketan txapeldun izan da berriki laugarren kategorian. Joan den astean, berriz, Espainiako Txapelketan aritzekoa zen Granadan.

Laboaren errautsak Izpegin

Mikel Laboaren errautsen zati bat Izpegiko kaxkoan dago apirilaren 18az geroztik. Ekitaldi xumea egin zuten eta senitartekoez gain, hainbat baztandar elkartu ziren.



ARGAZKIA: FREDI LOPEZ MENDIBURU

BRT irlandarren kontra

Baztan Errugbi Taldeak duela hilabete inguru akitu zuen liga. Aurtengoan ez dute Ohorezko Mailarako ligoa faserako sailkapenik lortu, baina ez zuten denboraldia guztiz akitutzat eman. Apirilaren 4an, Irlandako talde bat inguru honetan bira egiten ari zela aprobetxatuz, adiskidantzako partida jokatu zuten Lekarozen, eta bai irabazi ere.

MAIATZA
OSOAN 3 PIEZAKO
KOTXEZITOETAN
50eko DESKONTUA

POTTOKI
Baztanberrri Plaza, 3 - behea • ELIZONDO
T: 948 581 983
info@pottoki.com
www.pottoki.com

**APIRILAREN 24tik
MAIATZAREN 24ra**

**AUTOKO SILLETA,
MAXI COSI, BEBE CONFORT
ETA ROMER MARKETAN
%15-%20ko
DESKONTUAK**

ANTXITONEA
Trinketea

**Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea**

Menu Bereziak

Braço iriatse karrika
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

BAZTAN

San Francisco Javier ikastetxean eginen diren lanetarako 54.000 euro emanen ditu Gobernuak

Komunak zaharberritu eta segurtasuna bermatuko dira

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak ikastetxeak zaharberritu eta zabaltzeko iragarri dituen dirulaguntzen barne, Udalak 54.351,98 euro hartuko ditu 83.618,43 euroko aurrekontuari aitzin egiteko.

San Francisco Javier ikastetxeko lanetarako erabiliko da subentzioa. Komunak zaharberritzen 81.677 euroko aurrekontua duen obrak egitekoak dira eta dirulaguntza gastuaren %65ekoa izanen da, 53.090,05 eurokoa, alegia. Ikastetxeko segurtasuna hobetzeko eginen diren lanek 1.941,43 euroko aurrekontua dute eta kasu honetan ere dirulaguntza %65ekoa izanen da, 1.261.93 eurokoa.

Bertzalde, Osasunbideak kontsultategietan obrak egiteko emanen dituen laguntzen artean, 25.000 euro jasoko ditu Udalak Oronoz-

Mugairiko kontsultarako. Zaharberritze eta zabaltze lanen lehendabiziko faserako erabiliko da aipatu laguntza.

Kirola egiteko dirulaguntzak

Ortzegun honetan, apirilak 30, akitzekoa da Udalak kirol jarduerak egiteko emanen dituen dirulaguntza deialdian izena emateko epea. Eskaerak Arizkunenea Kultur Etxean aurkeztu beharko dira, 948 581279 telefonora deituta edo cultura@baztan.animsa.es helbidera idatzita. Irabazi asmorik ez duten Baztango kirol taldeek jasoko dute dirulaguntza.

Aparteko dirulaguntza BKTrentzat

Baztango Kirol Taldeak egindako dirulaguntza eskariari erantzunez, Udalak BKTri aparteko 10.000 euro ematea erabaki du.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Baztango XI. Ahari Lehiaketa

Apirilaren 17an egin zen Elizondon Baztango Udaberriko Feria, eta horren barne, ohi bezala, Ahari Lehiaketa egin zen hamaikagarren aldiz. Mutur gorri zein beltzendako sariak banatu ziren. Mutur beltzetan, lehenbiziko saria Iruritako Gernuxarrea baserriko Miguel Angel Maritorenarentzat izan zen. Santiago Oteiza erratzuarraren kaikua eta 75 euro eraman zituen; bigarren saria -50 euro- Almandozko Etxotoko Norberto Agerrerenrentzat izan zen eta hirugarren saria -30 euro- Elizondoko Pardioleneko Manuel Bertizentzat. Mutur gorrietan, kaikua eta 75 euroak Beartzungo Berekotxekobordako Encarnacion Oiaregirentzat izan ziren; bigarren saria -50 euro- Iruritako Indako Felix Uhartek eraman zuen eta hirugarrena -30 euro- Arraiozko Sagrario Urrotzek.



ARGAZKIA: PUENTXOK UTZITAKOA

Poker Txapelketa jokatu da lehen aldiz

Baztango Poker Texas Hold'em Txapelketa jokatu zen lehen aldiz joan den Aste Santuan Bagordiko Tiro elkartearen. Guztira 18 lagun bildu ziren (lau Iruñetik etorri ziren), eta sei laguneko hiru mahai osatu ziren finalurrekoetan. Bakoitzetik bi sailkatu ziren finalera: *Satanlekaroztarra*, *Moren* elizondarra, Iruñeko Antonio eta *Xagu*, Iruritako Angel eta Elbeteko Iban. Azkenean, *Satan* suertatu zen txapeldun. Poker Texas Hold'em *No Limit* modura jokatu zuten, eta partidak 17:00etatik 22:00etara luzatu ziren. Afalondan ere pokerrean segitu zuten parte-hartzaileek.

MENDIALDE
Jatetxea

T. 948 453 000
N. 1 21 0 26 40
L. AMAIUR

MENDI
ostatua

Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO

Iñaki Alzueta
margoak

Putzatu, pintatu eta instalazioak • Oinarriak: teknika, materialak, Ferrarria • Serbizioak
Lanetan eta berruntzeetan bitartean • Pizkunde
Nahi duzue laguntza ematen gaituzten? da
Tel.: 699 802 417 • Bar-irri etxea - Landibar Auzoa • 31711 URDAGUBI
jimenez.alzueta@yahoo.es

ARMUA JATETXEA

T. 948 595 134
Zuzendaritza etxea: 3. eta
URDAGUBI

SARA

Denboraldi zail baten ondotik errugbi taldea mailaz jautsiko da

Azken aitzineko postuan finitu dute aurtengo denboraldia

Xan HARRIAGUE

Sarako Izarra errugbi taldea 3. eta 4. serieak biltzen dituen mailan ariko da heldu den urtean. Aurtengo denboraldiko sailkapen fasean azken aitzineko postuan finituz herriko jokalariek maila batez jautsiko dira.

Denboraldi zaila izan dute. Joan den irailan jokalarien belaualdi zaharrenak utzi zuen, eta taldea gaztetu zen. Haren buru belaualdi berria zuen eta ondotik gazte frango. Denboraldi osoan gogo anitz erakutsi dute, baina eskarmentu falta anitz kostatu zaie.

Lehen partidetan maila eskasa izan zuten eta partidak pasa ahala hobetzen joan badira ere, azkeneko partidetan berriz ere falta anitz egin dituzte eta ezin izan dute maila atxiki. Heldu den denboraldian jokalariek berdinek segituko dute, eta duarik gabe, aukera



ARGAZKIA: JON ETXEBESTE

Jon Paterne, Jerome Salha, Alain Albistur eta Sebastien Lopez defentsa lanetan.

anitz izanen dituzte aurtengo mailara itzultzeko.

Autonomiari buruzko hitzaldia

Heldu den larunbatean Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xuberoako balizko autonomia izanen dute aipagai Lur Berri gelan antolatuta den hitzaldian. Autonomia zer den azaltzen aha-

leginduko dira, eta zertan laguntzen ahalko luketen herritarrek dituzten eguneroko problemei erantzuteko. Saran izaki, mugaz gaindiko harremanak ere aipatuko dituzte.

19:00etan hasiko da eta hiru hizlarik parte hartuko dute, Gabi Muesca, Vianney Sier eta Lontzi Amadok. Lehenbiziko biak Autonomia Eraiki elkarte-

koak dira eta hirugarrena LAB sindikatu-koa.

Herri Urrats bezperako gaupasa

Willis Drumond musika taldea izanen da aurtengo Herri Urrats bezperako gaupasako talde nagusia. Maiazaren 9an, 21:00etatik goiti harekin batera ariko dira Deskontrol, Ma-

ge Against the Racine, Mikel Hats eta Gaztetxe Band taldeak. Sartzea zazpi euro bainik ez da izanen. Aurtengo kontzertua Gaztetxearen 20. urteurrenaren ospakizunen barne egingen da.

Paul Delpech zendu da

Urte anitzetan Herria aldizkarian Sarren berri eman duen Paul Delpech zendu da 98 urte zituela. Gure herriko eguneroko bi-ziaren lekukotasun ederra utzi dauku. Zendu baino aste bat lehenago Herria aldizkariaren omenaldia izan zuen bere etxean.

Joko Berri Txapelketa

Larunbat goizean jokatuko dira aurtengo Joko Berri Txapelketeko finalak. Sari banaketaren ondotik trago batzuk hartzeko eta taloak jateko aukera izanen da.

m bentamiguel
denda, jatetxea eta ostetua

Ongi zeindutako sukaldaritza
Menuak aukeratu

Tabakoa
Likorak
Janaridenda
Urdategia

Ibardingo Lepoa - ☎ 948 631 209

VENTA PEIO

Basa (Administratzailea)	Donostia	Donostia	Lizasoain
11.700 BOKA	11.712 BOKA	11.700 BOKA	11.700 BOKA
☎ 948 625 130	☎ 948 600 300	☎ 948 620 714	☎ 948 700 004
Fax: 948 625 127	Fax: 948 500 495	Fax: 948 620 306	Fax: 948 700 000

SENPERE

Musika, kantua, dantza, bertsuak eta kirola nagusi 26. Herri Urrats bestan

Maiatzaren 10ean izanen da

Franck DOLOSOR

Aurten 25 urte bete-ko dira Herri Urrats Ipar Euskal Herriko ikastolen aldeko besta sortu zela eta beraz, 26. ekitaldia eginen da maiatzeko bigarren igandean, Senperereko aintziraren inguruan. Aldi batez gehiago besta haundiaren bidez dirua bilduko da ikastolak laguntzeko. Ikastolak 1969an sortu ziren Lapurdin, duela 40 urte. Gaurko egunean, 22 ikastola daude, 3 kolejo eta lizeo bat. Gero ikasketak euskaraz segitzen ahal dituzte Hego Euskal Herriko unibertsitateetan. 3 eta 18 urte arteko 2 500 ikasle dabilta Seaskako ikastoletan.

Haizea alde baita lelopean besta haundia ospatuko da maiatzaren 10ean. Aintziraren inguruan, Amaia Riouspeyrous, Danba, Watson, Trikidantz, Mikel Hats, eta Samain kantariak eta taldeak entzuten ahalko dira. Diskofestaz gain, bertsulariak ere agertuko dira, hauen artean Miren Artetxe, Xumai Murua eta Karlos Aizpurua. Haurren xokoan, Xan Erro-

tabehere kondalaria entzuten ahalko da.

Baratze publikoa

Urdazuri ibaia eta Eli-za artean dagoen baratze publikoa Bazkoz inauguratu dute Herriko Etxeko agintariek eta herritarrek. Herriak 250 000 euroko gastua egin du ibilbide bat egiteko, argiak emateko, lau zizelketa erakusteko eta haur jo-koak ezartzeko.

Diamantezko Ezteiak

Diamantezko Ezteiak ospatu dituzte berriki Mari eta Jean Ithourriak. Jean ibarrundarra eta Mari amoztarra, 1949ko apirilean ezkondu ziren eta elgarrekin lau seme-alaba izan dituzte: Pierre, Hélène, Maite eta Jean-Louis. Jakes Casaubon pilotazalea eta kultura gizonak dioenez, «*sekulan ez da aski goretsiko Jeanek Senperen pilotaren alde egin duen lana*». Badira 43 urte pilota batasuneko buru dela eta urteetan xapeldun frango trebatzen lagundu du. Dena den, pilotaz gain, Jean Ithourria sail



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Jendetza bilduko da aurten ere Senperereko aintziraren inguruan.



ARGAZKIA: AUCTIN ZAMORA

Hatsaren Eguna giro ederrean

Euskal herriko lau hegaletatik etorritako 40 bat olerkari bertze behin Amotzen bildu ziren hamekagarren aldiz Hatsaren Poesia Eguna ospatzeko. Aunitz izan ziren arrazoi bategatik edo bertzeagatik agertu ezin izan zutenak, eta denak gogoan izan zituzten, baina modu berezi batean gogoratu zituzten aurten hildako bi olerkari ospetsuak: Xabier Iratzeder eta Mikel Laboa. Hauen omenez bi olerki idatzi dituzte liburu berrian Eukene Lizeaga Tamayok eta Peio Jorajuriak. Aurtengo Hatsaren Poesia olerki bildumak ez die aitzinekoei deus ere zor, oraingoan ere, 100 bat idazlek parte hartu baitute banaka, eta 200 bat haur eta umetxok taldeka.

ainizetan aritu da bere bizian: kantoniera edo bide zaina ogibidez, suhiltzaile 25 urtez, musikaria eta kantaria Emak Hor batasunean, eta berriemaile Herria astekari eskualdunean, bertzeak bertze. Zorionak!

1609ko hilketak gogoan

Hitzaldi eta ekitaldi an-

dana eskaintzen ari dira Lapurdin, 1609ko sorigin auzien garaia jendeari azaltzeko. Apirilaren 24an hasi ziren ekimenak eta ekaina bukaera bitartean, bederlatzi hitzaldi antolatatu Lapurdi 1609 elkar-teak. Izan ere, urte horretan, 1609an Pierre De Lancre etorri zen Bordeletik Euskal He-

rriara, eta 80 bat lagun erretzera kondenatu zituen, sorgintzat joz.

Horietako bat herrian eginen da. Maiatzaren 8an, 21:00etan, Elkartetxean, *Euskal legeak XVI eta XVII. mendeetan* gaiaz ariko da Maite Lafourcade eta *Senperereko etheen zerrenda XVII. mendeangaiaz* Peio Chipi senpertia.

MONTXO OSTATUA
 ТАВЛКО-ДЕНДА
 АНЗАН-БОРДА - УРДАЗУБИ
 Egunero irekia 10:30etik 02:30era

Dantxarlineatik 2 km-tara

HEGALDIA
 ETXEREN
 LEDETUEK
 CAFÉ DE LA MAIRIE
 T: 0559542319
 Maizten eta Yéronopis
 SARA



EZKONTZAK

Asier Apezetxea Iparragirre eta **Edurne Almandoz Endara**, Arantzakoa eta Berakoa, apirilaren 18an Beran.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



SORTZEAK

Ane Garraus Bernabeu, Doneztebekoa, apirilaren 7an.

Maddalen Klop Fernandez, Lesakakoa Detroiten, martxoaren 21ean.

Ana Odriozola Goizueta, Lesakakoa, apirilaren 15ean.

Irati Zugarramurdi Barinaga-Re-menteria, Leitzakoa, apirilaren 12an.

Haize Alaia Berrouet, Sarakoa, apirilaren 16an.

Lore Joana Errandonea, Sarakoa, apirilaren 7an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.



HERIOTZAK

Florencia Bidegain Uztaritz, Arizkungoa, apirilaren 7an, 87 urte.

Francisca Galarregi Ibarra, Sunbillakoa, apirilaren 9an, 92 urte.

Jose Antonio Arrieta Zubieta, Sunbillakoa, apirilaren 11n, 60 urte.

Angel Zugarramurdi Agesta, Igantzikoa, apirilaren 13an, 86 urte.

Jesus Sanzberro Galarregi, Lekarozkoa, apirilaren 14an, 75 urte.

Lorenza Etxarri Caballero, Leitzakoa, apirilaren 14an, 82 urte.

Fausta Baraibar Igoa, Leitzakoa, apirilaren 15ean, 92 urte.

Maria Ibarrola Iribarren, Urdazubikoa, apirilaren 18an, 89 urte.

Fernanda Mariezkurrena Baztarrika, Eratsungoa, apirilaren 19an, 79 urte.

Ramona Mindegia Garro, Doneztebekoa, apirilaren 20an, 88 urte.

Paul Delpech, Sarakoa, apirilaren 18an.

Antoinette Etcheverri, Sarakoa, apirilaren 10ean.



Jaione MUTUBERRIA MENDIKOA

Narbarten, 2006ko maiatzaren 6an
III. URTEURRENA

Nork erranen du zer den
alaba bat joatea,
zer den haren lekua
hutsik ikustea?
Jaione zenak utzi du
familia maitea?
Jaunak dio ideki
zenuko atea.

ZURE FAMILIA




Juan Luis ORDORIKA ARIZMENDIARRIETA

Toki Ona Institutuko irakasle ohia

Malloetatik Berara
irrintzi bat entzun da,
xoko honetan gordeko dugu
zure irribarrearen oroipena,
doaiela Beratik Uztegraino
gure saminaren oihartzuna.

TOKI ONA INSTITUTUA



Xalbador OLAGARAI DANBORIENA

Lodi-Kalifornian, apirilaren 4an

Urepeleko artzainaren gisa joan
eta ez zara berriz etorriko
gogorra da onartzea
ez zaitugula gehiago ikusiko
baina bizi garen artean
ez zaitugu atzenduko.

ZURE ILOBAK

MENDIA



ARGAZKIA: I. UGALDE

Iazko Baztango Mendi Itzulia Arraiozen hasi eta Arraiozen bukatu zen.

Bera, Baztan eta Aresoko mendi itzuliak Nafarroako mendi ibilbideen zirkuituaren barne

Zortzi itzulik osatuko dute zirkuitua eta dagoeneko hiru egin dira

ttipi-ttapa

Nafarroa osoan eginen diren zortzi mendi itzulik osatuko dute aurtengo Nafarroako mendi ibilbideen zirkuitua eta tartean daude eskualdeko hiru: Berako Mendi Itzulia, Baztango Mendi Ibilaldia eta Areso Itzulia. Horiekin batera, Altsasuko Mendi Ibilaldia, Zudaireko Amezkoako Martxa, Sakanako Ibilaldi Handia, Alaizko Mendi Ibilaldia eta Aralarko Mendi Ibilbideak osatuko dute zirkuitua. Joan den urtean Arantza, Baztan eta Lesakako mendi itzuliak Nafarroako lehenbiziko ibilbide luze zirkuituaren barne egin ziren, baina Arantzakoa eta Lesakako bi urteko behin antolatzen dira eta aurtengoa ez da.

Zirkuituko ibilbideetan ez da sailkapenik jasoko, eta lau ibilbide bukatzen dituzten federatutako partaideek oroigarri bat jasoko dute. Infor-

mazio gehiago nahi izanez gero, klubetan edo Mendi eta Eskalada Kirolen Nafarroako Federakundearen Interneteko atarian aurki daiteke: www.mendinavarra.com.

ZORTZITIK HIRU EGINAK

Zirkuituko zortzi itzulitiko hiru dagoeneko egin dira: apirilaren 4an egin zen **Altsasuko II. Mendi Ibilaldia** (42 kilometro eta 2.100 metroko desnibela), Zudairen apirilaren 18an egin zen **Amezkoako IV. Martxa** (43 kilometro eta 930 metroko desnibela) eta Irurtzenen apirilaren 25ean egindako **Sakanako XX. Ibilaldi Handia**. Mendizaleek bi ibilbide eduki zituzten aukeran: luzeena 54 kilometrokoa eta laburra 46 kilometrokoa.

Laugarren itzulia igandean honetan Beran eginen dena izanen da: **Berako IX. Itzulia**. 30 kilometro izanen ditu eta 1.000 metroko desni-

bela.

Alaizko X. Mendi Ibilaldia Etxaguen eginen da maiatzaren 9an, eta 38 kilometroko luzera eta 1.975 metroko desnibela izanen ditu.

Seigarren itzuliarekin berriz eskualdera ailegatuko da zirkuitua, **Baztango XVI. Mendi Ibilaldia**rekin. Baztango Mendigoizaleek antolatuta maiatzaren 31n eginen da eta 35 kilometro luze izanen ditu eta 1.300 metroko desnibela. Aurtengoan Zigan eginen da.

Ekainaren 7an **Aralarko XI. Mendi Ibilaldia** eginen da Lekunberri. 46 kilometro eta 1.700 metroko desnibela izanen ditu.

Aresoko Itzulia, berriz, irailaren 6an eginen da eta hau izanen da zirkuituko azken proba. Aurtengo ibilaldiaren bigarren edizioa izanen da eta 26 kilometroko luzera eta 500 metroko desnibela izanen ditu.



Berako IX. Mendi Itzulia eginen da igande honetan

ttipi-ttapa

Igande honetan, maiatzak 3, eginen da berderatigarrenez Berako Mendi Itzulia. 30 kilometro izanen ditu ibilbideak, aitzineko aldietan bezala. Itzuliaren desnibela, berriz, 1.000 metrokoa da.

Agerra elkartetik (65 metro) hasita Larretagaina edo Santa Barbara izanen da igo beharreko lehenbiziko tontorra (400 metro). Handik Idoiako bidegurutzera jaitsi eta Labiagako kaskora (618 metro) igo beharko da. Segidan Lizuniagara jaitsi beharko da, eta berriz goiti egin beharko da Kondendiagan barna. Larun (900 metro) izanen da ibilbideko gailurrik altuena. Handik beheitarako bidea hartu beharko da lasola Zaharra eta Landagaitatik pasatuz. Usategiatatik goiti, Ibardin eta Azkenbenta pasatu beharko dituzte mendizaleek, gero Mantalera igozteko (573 metro). Postan barna bidea egingez, Agerran akituko da itzulia.

IZEN EMATEA

Ibilaldian parte hartzeko 10 euro ordaindu beharko dituzte federatuak ez direnek eta 8 euro federatuak. Izena egun berean eman beharko da Agerra Mendi Taldearen egoitzan, 6:00etatik 7:50 bitartean. Irteera, berriz, 7:00etatik 8:00etara egin beharko da, eta parte-hartzaile bakoitzari dagokion txartela irteerako kontrolpostuan emanen zaio, hurrengo kontrolpostuetan erakusteko.

TXIRRINDULARITZA

Bidasoako Itzuliko hirugarren etapa Beran hasi eta bukatuko da

Maiatzaren 6an hasiko da Itzulia eta Berara bi egun beranduago ailegatuko da

ttipi-ttapa

Maiatzaren 6an hasi eta 9an bukatuko da Bidasoako Itzulia txirrindularitza proba. Lau egunez, etorkizuneko txirrindularizosaturako tropelak 446,7 kilometro egingen ditu gure inguruan eta Gipuzkoa eta Lapurdi aldean. Ohi bezala, antolatzaileek lau

etapatan banatu dute itzulia.

Lehenbizikoa Irunen hasi eta Hendaian bukatuko da eta 123,2 kilometro egin beharko dira. Bertzeak bertze, hirugarren kategoriako Gurutze eta Meagas gainak izanen dira puntuarik altuenak.

Bigarren etapa Honda-



ARGAZKIA: TELLETXEA

Aitzineko edizio batean Arantzan bukatu zen Bidasoako Itzuliko etapa bat. Argazkian Azanza txirrindularia ageri da, orain Euskaltel-Euskadiko profesionala dena, helmugara ailegatzen.

rribian hasiko da eta 133,6 kilometro egin ondok, hasitako tokian bukatuko da. Aldi honetan, hirugarren mailako Ziga eta lehen mailako Jaizkibel gainak pasatu beharko dituzte kirolariek. Hirugarren etapa, maiatzaren 8an egingen dena, gure eskualdean jo-

katuko da, eta irteera eta helmuga Beran izanen dira. 108,1 kilometro egin beharko dituzte txirrindulariek, Belate (hirugarren maila) eta Gorostieta mendateak (bigarren maila) pasatuz.

Laugarren eta azken etapa Irunen hasi eta bu-

katuko da eta 81,8 kilometroko luzera izanen du. Igo beharreko mendateak Gurutze (hirugarren maila) eta Arrixelegi, Agiña eta Erlaitz (lehenengo mailakoak) izanen dira. Lan guztia egindakoan Irungo Colón pasealekuan izanen du Itzuliak helmuga.

PILOTA

Belateko klub arteko pilota txapelketaren finalak jokatu dira

14 finaletan eskualdeko sei elkartek parte hartu dute

ttipi-ttapa

Esku pilotako Belate elkarteko ligan, klub arteko txapelketako finalak jokatu ziren apirilaren 4an Bera eta Lesakako pilotalekuan, guztira 14 final.

Benjaminen lehen mailan, Goizuetako Umore Onako Iker Salaberria eta Ander Apezetxeak 18-9 irabazi zieten Igantxiko Biltokiko Jokin Mitxeo eta Enaitz Telletxeari. **Bigarren mailan**, Etxalarko Altxatako Aritz

Irazoki eta Andoni Iribarrenek 18-10 irabazi zieten Berako Gure Txokoko Gaizka Zandio eta Xabier Sanzberrori. **Hirugarren mailan**, Umore Onako Ioritz Elizegi eta Aitor Aizkorbek 18-5 irabazi zieten Txarutako Oihan Meoki eta Eki Etxandiri.

Alebinen lehen mailan, Gure Txokoko Peio Migelena eta Andoni Lazkanotegik 18-16 irabazi zieten Iruñeko Medina eta



ARGAZKIA: GOIKO

Beran finalak jokatu zituzten pilotariak.

Txarutako Iñaki Antsori. **Bigarren mailan**, Lesakako Arkupeko Julen Palenzuela eta Jon Errok 18-9 irabazi zieten Iker Grados eta Mikel Otermiñi. **Hirugarren mailan**, Umore Onako Mikel Uitzti eta Ander Apezetxeak 18-9 irabazi zieten Lekunberriko Etxarri eta Barberenari.

Infantilen lehen mailan, Biltokiko Unai Telle-

txea eta Joseba Aldabek 18-3 irabazi zieten Donibaneko Laso eta Bakakoari. **Bigarren mailan**, Iruñera joan zen txapela.

Lehen mailako kade-teetan, Olaztiko Gartzia eta Kintanak 18-12 irabazi zieten Txarutako Iban Inda eta Arkaitz Untxalori. **Bigarren mailan**, Urtzamara joan zen txapela.

Jubeniletan, Txarutako

Aritz Juanenea eta Asier Jauregik 22-8 irabazi zieten Larraintzarko Juanbeltz eta Eugiri.

Seniorretan, Altsasura joan zen txapela.

Lehen mailako prebenjaminetan, Donibanera joan zen garaipena. **Bigarren mailan**, Umore Onako Eñaut eta Manex Apezetxeak 18-14 irabazi zieten Tafallako Senosiain eta Fernandezi.

MENDIA



ARGAZKIAK: MANTTALE

Goian irabazleak gizon eta emakumezkoetan, eta behean irteera puntua.

Gizonezkoen eta emakumezkoen markak gainditu ditu Berako Mendi Maratoi Erdiaren V. edizioak

Lasterketa abiatu duten 496 korrikalaritik 449 ailegatu dira helmugara

ttipi-ttapa

Marka ugari hautsitzuten apirilaren 19an egin zen Berako Maratoi Erdiaren bortzgarren edizioak. Alde batetik, parte-hartzearena, 524 korrikalarik izena eman baitzuten, 496 atera ziren eta horietatik 449k akautu zuten Manttale Mendi Taldeak antolatutako lasterketa. Eskualdeko kirolari eta taldeei dagokienez, 39 ailegatu ziren helmugara.

Bertzetik, Didier Zago frantziarrak marka berria egin zuen, ordu-bete, 40 minutu eta 19

segundo behar izan baitzuten 21,150 kilometroko ibilbidea eta 2.714 metroko desnibela duen proba akitzeko. Beraz, Ionut Zinkak duela bi urte egindako marka minutu eta 8 segundotan hobetu zuen frantziarrak. Honela, Manttale Mendi Lasterketa Taldeak marka gainditzuten zuenarendako zituen 300 euroak ere eskuratu zituen.

Baina ez gizonzkoen artean bakarrik. Emakumeen marka ere hobetu egin zuen Oihana Kortazar elgetarrak (Gipuzkoa) eta 2 ordu,

5 minutu eta 35 segundo behar izan zituen, Alizia Olazabal irundarrak (Gipuzkoa) ezarritako marka minutu eta erdian hobetuz.

LEHENBIZIKO LAU GIZONEZKOAK BIKAIN

Gizonezkoetan ez zen Zago bakarrik bizkor ibili, lau lehenbizikoek joan den urteko denborarik onena gainditu baitzuten. Jokin Lizaga urnietarra bigarren izan zen, (1:41:34), Sestaoko Walter Becerra hirugarren (1:42:26) eta Fernando Etxega-

rai beraterra laugarren (1:42:36).

Manttaleko korrikalarien artean, aipatzekoak izan ziren Iñigo Lasaga etxalartarraren zazpigarren postua (1:48:19) eta Unai Santamaria hernaniarraren zortzigarrena (1:48:51).

EMAKUMEZKOAK ERE EDERKI

Emakumezkoen artean, Oihana Kortazarren gibeletik, azken hiru urteetako irabazleak, Alizia Olazabal irundarrak eta Ainhoa Jaurregi urnietarrak (Gipuzkoa) osatu zuten po-

diuma. Dena den, aipatzekoa da, emakumezko gutti aterazirela lasterketan, eta horietatik eskualdekoak bakar bat ere ez.

GAZTETXOETAN KORRIKALARI AUNITZ

Aipatzekoa da 15 eta 17 urte arteko korrikalariari zuzendutako 6,6 kiilometroko lasterketan ere parte-hartze polita izan zela. Ibardinen akutu zen lasterketa eta Zumarragako Iñigo Unanue (Gipuzkoa) nagusitu zen, Julen Errandonea beratarraren aitzinetik.

ESKUALDEKOAK			
KIROLARIA	POSTUA	TALDEA	DENBORA
Fernando Etxegarai	4	EUSK. SELEKZIOA	1:42:36
Iñigo Lasaga	7	MANTTALE	1:48:19
Unai Santamaria	8	MANTTALE	1:48:51
Pantxo Ibarra	40	SARA KORRIKA	1:59:52
Tomas Santxotena	48	BAZTANGO MEND.	2:02:07
Alfredo Telletxea	49	MANTTALE	2:02:16
Eric Vignole	59	SARA KORRIKA	2:03:48
Iñaki Pikabea	60	MANTTALE	2:03:50
Iban Zubieta	80	MANTTALE	2:06:23
Joseba Lasarte	96	BERA	2:07:55
Igor Larrañaga	98	MANTTALE	2:08:03
Iñaki Larrañaga	102	MANTTALE	2:08:15
Angel Pombar	108	MANTTALE	2:08:49
Juan Luis Irazoki	143	AGERRA MENDI T.	2:12:51
Xabier Prieto	171	BERA	2:15:14
Txus Unson	175	MANTTALE	2:15:34
Dani Iparragirre	178	ARANTZA	2:16:12
Aitor Mitxelena	190	LESAKA	2:16:59
Jose Javier Elizaintzin	200	IRURITA	2:17:53
Andoni Larrañaga	204	BERA	2:18:15
Jorge Arakues	226	MANTTALE	2:20:28
Igor Agesta	231	MANTTALE	2:20:58
Jean Michel Goienetxe	232	SARA KORRIKA	2:20:59
Joseba Petrirena	235	BERA	2:21:24
Joxerra Aldabe	238	ERREKA	2:21:42
Joxe Mari Salgado	244	MANTTALE	2:21:57
Andoni Lasaga	249	ETXALAR	2:22:13
Fernando Dean	270	MANTTALE	2:24:08
Igor Altzugarai	272	LESAKA	2:24:22
Javier Iantzi	277	LESAKA	2:24:49
Martin Antzizar	291	LESAKA	2:25:49
Fermin Esnaola	313	MANTTALE	2:29:37
Jon Santsiñena	314	ETXALAR	2:29:45
Rafael Pombar	318	MANTTALE	2:30:00
Angel Subizar	341	MANTTALE	2:34:16
Tomas Teiletxea	363	MANTTALE	2:37:19
Iñaki Portu	397	BERA	2:43:59
Xabier Orube	398	LESAKA	2:44:34
Iñaki Razkin	416	MANTTALE	2:49:43

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

LEHIAKETAK

BAZTAN-BIDASOALDEA

Maiatzaren 1era arte, Bidasoako XXII. Bertsopaper Lehiaketa.

ERAKUSKETAK

URDAZUBI

Urte osoan, gaur egungo pinturari buruzko erakusketa. Ortzegunetik igandera, 14:00etatik 18:00etara Monastegiko Klaustroan.

ERAKUSKETAK

BERA

Apiriletik ekainera, komiki ikastaroa ortzegunero Kultur Etxean, 19:00etatik 20:30era. Lehen saioa apirilaren 30ean.

HITZALDIAK

SENPERE

Maiatzaren 8an, *Euskal legeak XVI eta XVII. mendeetan* hitzaldia, Maite Lafourcaderekin; *Senpereko etxean zerrenda XVII. mendeen*, Peio Chipirekin. Elkartetxean, 21:00etan.

AZKAINA

Maiatzaren 30ean, *Deabruaren putak* gaiari buruzko hitzaldia Armelle le Bras Choparderekin. Gaztetxean, 21:00etan.

KONTZERTUAK

BERA

Maiatzaren 9an, Ipar-alde Abesbatzaren (Derio) erakusketa, 20:30ean Kultur Etxean.

ELIZONDO

Maiatzaren 30ean, Des Kontrol taldearen kontzertua, 23:30ean Lur dantzalekuan.

GOMENDIOAK



Herri Urrats ikastolen aldeko besta maiatzaren 10ean

HITZORDUA SENPEREKO AINTZIRA INGURUAN

Haizea alde baita lelopean, Herri Urrats besta haundia egingen da maiatzaren 10ean Senpereko aintziran. 1984an, gurasoen ekimenez hasi ziren halako besta egun bat antolatzen, Seaska Ipar Euskal Herriko Ikastolen Elkartearan diru beharrei erantzuteko. Eta halaxe joan dira urteok. Euskararen alde antolatutako hitzordu garrantzitsu bilakatu da, urtetik urtera gero eta harrera hobea duena, gainera. Senpereko aintzira inguruko lau kilometroak zazpi gutan banatzen dituzte eta aurten ere hala izanen da: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa, Zuberoa eta Haurren Txokoa.

Guztietan hainbat ekitaldi izanen dira: kontzertuak, bertsolariak, dantza saioak, Xiba jokoak, haurrentzako ikuskizunak eta jokoak... 10:00etatik aitzinera hasiko dira ekitaldiak.

40 URTE SEASKAK

Urte hau berezia da Ikastolen Elkartearentzat, aurten 40 urte bete baititu. 1969an sei haurrez osatutako talde tiki hartatik abiatuta, 22 ikastola, hiru kolejio, lizeo bat eta 2.500 ikasle edukitzera pasatu da Seaska. Urteurrenaren harira, ospakizun eguna egin zuten apirilaren 11n Biarritzen (Lapurdi).

DISKAK



Haikua izenarekin aurkeztu du Sagarroi talde beterranoak bere azken lana, akustikoa. Haikuak Japoniako okerki mota bat dira eta taldearen arabera, «lan akustiko berri honetan hitz guztiak haikuak dira». Taldeak japoniar tradizioko molde poetiko honetan josi ditu hitzak, erranhiak eta doinuak. Haiku hauek Karmele Jaio eta Iñigo Muguruzak lan honetarako espresuki idatzi dituzte. Sagarroiren bortzgarren diskoa da otsail hondarrean Garate estudioetan grabatu zuten, Kaki Arkarazorekin. Aipatzekoa da, eurek ekoizitako lehenbiziko lana dela. Akustikoa egindako 13 abestik osatzen dute, baita *Berandu da oraindik* abestiaren bideo klipak ere. Informazio gehiago nahi izanez gero, www.myspace.com/sagarroi Interneteko atarian.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (apirilaren 10etik 17ra bitarteko prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 46,00 € (=)

Zerri gizena
1,127€ kilo. (=)

Zerramak:
0,460€ Kg/bizirik. (=)



BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal Extra 4,10 (=)

1.koa 3,80 (=)

2.koa 3,10 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,20 (=)

1.koa 3,90 (=)

2.koa 3,22 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruak 130,00 (=)

idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruak 108,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 2,98/3,08

Zaldi-behorrak: 1,67/1,87

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 5,10/5,90

8-10 kilokoak: 4,20/4,50

JAKIN BEHARREKOAK

Kontsumitzailea berankorren zerrendan sartu aitzinetik egiaztatzen dio Iratxek

Auzitegi Gorenak «ohore eskubidea urratzea» izan daitekeela ebatzi du

Bezero berankorren zerrendan sartu aitzinetik, enpresa eta banketxeek kontsumitzailearen zorra egiaztatu behar dutela ohartarazi du Iratxe Nafarroako Kontsumitzaileen Elkar- teak. Hala baieztatu du Auzitegi Gorenak, egiaztatu gabe be- zeroa berankorren zerrenda sartzeari «ohore eskubidea le- gez kontra urratzea» dela ebatzi baitu.

Hainbat dira be- rankorren zerrendan egoteagatik kaltetuak atera diren kontsu- mitzaileak eta horie- tako aunitzek Iratxe- rengana jo du. Kon- sumitzaile baten ize- na berankorren tar- tean ageri denean, honek banketxeetan edozein kreditu lor- tzeke arazoak eduki ohi ditu. Gainera, zenbait kasutan, aka- tsa bat tarteko sar- tzen da bezeroa be-



Iratxeren arabera, kontsumitzailea berankorren zerrendan sartzeari ekonomikoki eta per- sonalki kaltegarria izan daiteke.

rankorren artean, eta horren harira, telefo- nia konpainia eta banketxe batzuek isuna ordaindu behar izan dute. Iratxeren arabera, Espainiako Datuen Babeserako Agentziak 60.000 eu- ro baino gehiagoko isunak paratu izan di- tu.

Horrelako egoerak saihesteko «seriota- suna» eskatu du Ira- txek, «kalte ekono-

mikoaz gain, irudia eta duintasuna ere kaltetuak izan baitai- tezke».

Auzitegi Nagusiak joan den apirilaren 3an emandako ebaz- penarekin kontent dago Iratxe Bere hitzetan, «epai horrek Iratxeren ustea in- dardu egin du eta kon- sumitzaileari babes haundiagoa eman dio, gaia delikatu de- lako».

KONTSUMITZAILEEN ESKUBIDEAK

Bezeroa berankorren zerrendan sar- tzen denean, ardu- randuak hurrengo 30 egunetan jakinarazi behar dio hori kon- sumitzaileari. Honek eskubide osoa du be- re datuetara jo, zu- zendu eta zorrik ez duela egiaztatuz ge- ro zerrendatik kanpo gelditzeko. Horretar- rako, hartzekoduna- rengana joan behar da. Erregistro hauek gehienez ere sei ur- teko iraupena dute.

Iratxek utzitako da- tuen arabera, 40.000 lagun inguru beran- korren zerrendara pa- satzen dira hilabete- ro. Hala, dagoeneko bi milioi dira ustez ez ordaintzeagatik ze- rrendan daudenak. Gainera, krisi ekono- mikoa dela-eta, erre- gistroak goiti doaz, eta 32 milioi euroko zorra omen dago.

LIBURUAK



Euskal kultura?

Antton LUKU

PAMIELA, 2009

Antton Luku Hargindegi 1959an Kalifornian sortu zen, baina haurra zenean familia- rekin heldu zen Amikuzeko Ar- beratze herrira bizitzera. Be- re azken antzerki ekoizpena Fauxto karrusa izan da eta *Euskal Kultura?* saiakera hau ikuskizun haren kariatara ida- tzia izan da, oinarri teoriko gi- sa. Lan honek 2008ko Juan Zelaia Saiakera Saria irabazi zuen. Epaimahaikoen aktak honela zioen: «[...]Ipar eta he- go, eroso egokitu eta kokatu-

riko euskal kulturaren ideien eta praktiken mundu subordi- natua inarrosiz, lanak haize berria dakar, egunoroko ihar- dueretan tratatua eta hizkun- tza bizian. Saiakera akademi- koa bainoago eztabaida era- gile da; hain zuzen, lehiaketa honen xedetarik bat, epaima- haiaren ustez». Egilearen hit- zetan, «lan hau euskal kultu- rari buruz abiatzen bada ere, laster hetsiko zaigu zirkulua, kultura baino gehiago ikuski- zun biziaren tratatzeko».

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

MENDI ATERALDIAK

BERA

Maiatzaren 3an IX. Mendi Itzulia. Xehetasun gehiago 35. orrialdean.

BAZTAN

Maiatzaren 10ean Herri Urratsera ateraldia antolatuta dute Baztango Mendigoizaleek.
Maiatzaren 17an Belatera ateraldia, Baztango Mendigoizaleek antolatuta.
Maiatzaren 24an, Hirubelakaskora irteera antolatuta dute Baztango Mendigoizaleek.

OSPAKIZUNAK

SENPERE

Maiatzaren 10ean Herri Urrats. Xehetasunak 33. eta 38. orrialdean.

BERA

Maiatzaren 2an Gazte Eguna. Xehetasunak 9. orrialdean.

DONAMARIA

Maiatzaren 2an Gazte Eguna. Xehetasunak 20. orrialdean.

BEINTZA-LABAIEN

Maiatzaren 2an elkarteko besta. Xehetasun gehiago 21. orrialdean.

LEKUNBERRI

Maiatzaren 3an Natur Bideen Eguna. Xehetasunak 27. orrialdean.

IGANTZI

Maiatzean Udaberriko Bestak. Xehetasun gehiago 12. orrialdean.

FERIAK

DONEZTEBE

Maiatzaren 8an Udaberriko Feria. Xehetasunak 18. orrialdean.

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8 € ordaindu behar dira. Argazkia jarri nahi izanez gero, 10 €. Ttipi-ttapa telebistan eta www.ttipi.net en ere agertuko da 8 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituko
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ANZABAL INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurrak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI.

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatuak bere lurarekin salgai.

Tel. 948 580 804


Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

IRUÑA. Txantrean pisua salgai, 4. solairuan, igogailurik gabe. 3 logela, egongela, sukaldia, komuna eta trastelekua. Berritua eta mobleztatuta. ☎ 667 363593.



DONEZTEBE. Ameztia karrikan pisua salgai. Interesgarria. ☎607 978656.

ELIZONDO. 140m²ko pisua salgai edo errentan emateko. 4 logela, igogailua eta ganbara. Santiago karrika 60 A 2.a. Hagitz aukera ona. ☎617 461649.

ARANTZA. Bi familiako etxe batean etxebizitza salgai. ☎630 388154.

IRUN. Herrigunean pisua salgai, 2. solairuan. Sukaldia eta bainugela—trensa guztiekin—, 2 logela eta

egongela. Berogailua eta igogailua. ☎637 559152.

ETXEBIZITZAK

103 Errentan eman

BARAÑAIN. 2 logelako apartamentua errentan emateko. Garaiea eta trastelekuarekin. ☎606 192829.

ETXALAR. Pisua errentan emateko, mobleztatua. ☎943 638131.

ETXEBIZITZAK

104 Errentan hartu

BERA. Pisua edo etxea errentan hartuko nuke. ☎678 346566.

GARAJEAK/LOKALAK

107 Saldu

LESKA. 20m²ko lokal komertziala salgai. Albistur 43. ☎659 609678.

LESKA. Antoiu 23, behoko solairuan, 48 m²ko bulegoa salgai edo errentan emateko. ☎679 432522.

GARAJEAK/LOKALAK

109 Errentan eman

BERA. Martxandagoen ile-apaindegi bat errentan emateko. ☎ 675 716121.

LURRAK/ORUBEAK

112 Saldu

DONEZTEBE. Bi partzela eraikigarri salgai. Prezio ona. ☎607 978656.

ZERBITZUAK

208 Bertzelakoak

Fistula arazoak? Kirurgiarik gabe. Naturala. 15 egunetan moldatua. ☎618628311.

IRUÑA-BURLATA. Ikasle gazteentzat: zure bokazioaren eta gaitasunen arabera, zuretzat lanbide egokiena zein den jakin nahi baduzu, numerologiaren zientzia zure eskura duzu. Zientzai honek zenbakien

bidez —jaiotze-datan eta izen-abizenetan oinarrituz—, gizabanakoaren izaera, nortasuna eta intzidentzia guztiak ezagutarazten ditu. Azterketa bat egitea nahi duenak deitu. Prezioa: 20 euro. ☎647 156370.

LANA

302 Eskaintzak

SARAn sukaldaria eta zerbitzaria behar dira lanean aritzeko. Sukaldaria emakume euskalduna eta esperientziaduna bada hobea. ☎ 686 561525/ 0033 559542131.

ANIMALIAK

601 Emateko

Ardi **zakurkumeak** oparitzeko. ☎679 892622 (otorduetan deitu).


Katakumeak oparitzeko. Ile gorri eta marradunak, bat grisa. Ama iletsua. ☎607 744199.

Setter eta pointer arrazako **zakurkumeak** oparitzeko. Hilabete batekoak. Luma ehizarako. ☎607 744199.

ANIMALIAK


602 Salerosketak

Mendiko **garainoa** erosi edo trukatu nuke. Beltza bada hobea. Nirea mendian ongi egoten dakiena da, pottoken tamainakoa. ☎637 873969.



2 **ahari** salgai, latxak eta mutur gorriak. ☎ 948 504498.

3 urteko **zaldia** salgai. ☎628 538652.



DENETARIK

702 Salerosketak

1,5-6x44ko **mira** salgai. Le-poupold eraztun desmuntagarria eta fundarekin. 275 euro. ☎629 722980.

Esnea hozteko **tankea** salgai, 250 litrokoa. ☎948 504498.

Gaztain piketeak salgai, 1,80 metrokoak. 100 pike-terako eskaerak guttienez, bakoitza bi eurotan. Kartagaterako momentuan ordaindu beharra (ez dugu atzerapenik onartuko). ☎948 510078.

Same Minitauro markako **traktorea** salgai, 60 zaldikoa, eta esnea hozteko **tankea** salgai, 420 litrokoa. Japy markakoa. ☎660 251884.

Bi **ohatze** oso salgai (somierra, koltxoia eta burukoia). ☎948 599267.

Bigarren eskuko rapid **segadora** erosiko nuke. ☎948 631212/ 649416302.

Rapid **segadora** eta Agria markako **motoaitzurra** salgai. ☎948 450060.

Galfre markako **belarrari buelta emateko** salgai 400 eurotan. Kuhn markako **belarra biltzekoa** salgai (2 metro), 900 eurotan. ☎948 450060.

Aquator markako **rotabandorea** salgai, 1.500 eurotan. 2 lerroko artoa ereiteko salgai. ☎948 450060.

Lizardi
Telekomunikazioak

TDT Instalazioak
TB Instalazioak
(satelite, lurkekoak)
Instalazio individualak eta kolektiboak
Portero automatikoak
Ebeke hari musikala

Tel. 670 415 720
joxeanlizardi@hotmail.com

ttipi
ttapa

☎ (0034) 948 635458

MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

SANTESTEBAN Tailerrak

RENAULT

Scenic II 1.9 dCi 130cv 2007koa + 18.000 km
Español Español 1.000 100cv 7 plazas 2007koa + 12.000 km
Kangoo Grand van 1.9i 90cv 2006koa + 17.000 km

ETA GAINERA

• Opel astra GTC 1.9 16V 120cv 2006koa + 72.000 km
• Peugeot 307 1.100cv 2006koa + 28.000 km
• Megane II Compressor 1.5 DCI 105cv 2007koa
• Ford Focus 1.8 TDI 2007koa
• Kangoo Express 1.9 100cv 2006koa
• Citro W Evasion 1.5 DCI 75cv 2006koa + 18.000 km

DONEZTEBENKO RENAKUTAN KOTAN IA BERRITAN SEKULAKO EKANIZKAN

ttipi txartela

Orain ttipi txartelarekin sekulako abantailak:

- 40 dendetan deskontuak
- Errenta aitorpenean %25eko desgrabazioa
- txarteldunentzat ttipi-ttapa aldizkaria debalde

oso erraza da,
948635458
telefonora deitu



Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,32€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net



Elizondoko **IULEN JUANIKOTENA BORDAK** urtea beteko du apirilaren 20an. Zorionak osaba, izeba eta berexiki amatxi, Laura eta Oierren partetik. Muxu haundi haundiak!!!



Urdazubiko nire **AITATXIRI**: aunitz urtez apirilaren 18ko partez!! Muxu pila Sunbillatik Pablo Irazoki Olaizolaren partetik.



Ibarrako **IREBER** eta bere aita **RAMONEK** urteak bete dituzte apirilaren 16 eta 22an. Txokolatzeko muxuak Lesakako ataxi, amatxi, Jose, Saigots eta amaren partetik.



Zorionak Leitza eta Beteluko **ALAITZ OLANO SOTILI** apirilaren 25ean 9 urte bete dituelako. Ondo pasa eguna lagun eta familiaren partetik, batez ere, aiton-amonen partetik haiala iloba polit, alai, dibertigarri, zorionsua den neskatxari. Besarkada bat, bi, hiru... denon partetik.



JANIRE eta **OIHAN APEZTEGIAK** maiatzaren 12an eta 24an 13 eta 4 urte beteko dituzte. Zorionak zuen lagun partetik. Muxu haundi bana eta ez atzendu berendu goxoa prestatzeaz!



MADDALEN ARENAS ETXEBERRIA. Aunitz urtez pexioxa, maiatzaren 16an urtea beteko duzulako!!! Muxuk familia guztiaren partetik.




Etxalarko **MIREN LASAGAK** 14 urte bete ditu apirilaren 11n eta **JOSEBA IRAZOKI** 12 urte eginen ditu maiatzaren 1ean. Zorionak eta mila muxu familia guztiaren partetik eta berexiki Lander eta Aritzen partetik.



ARITZ IRAZOKI GOIENETXE etxalartarrak 9 urte bete ditu apirilaren 21ean. Zorionak eta mila muxu gure pilotariari familia guztiaren eta berexiki Lander, Miren eta Josebaren partetik.



FELIPE UGALDEK urteak beteko ditu maiatzaren 9an. Zorionak etxeko partetik! Berendu goxo baten espe-roan geldituko gara!



HODEI AIOROA APEZTEGIAK iturrendarrak maiatzaren 5ean 10 urte beteko ditu. Aunitz urtez eta ongi pasa eguna atxa, ama, Aitz eta Haizearen partetik.




Sunbillako **JANIRE APEZTEGIAK** maiatzaren 12an 13 urte beteko ditu. Zorionak familia guztiaren partetik.



EKAI ETXEBERRIA CASTEIG beratarak apirilaren 17an urtea bete du. Zorionak bihurri, irri horrekin konkistatzen gaituz! Mila muxu Aimar, ama, atxa eta familia guztiaren partetik.



ANE ETXEPETELEKU BURGETE lesakarrak 11 urte beteko ditu maiatzaren 2an. Zorionak familiaren eta berexiki Josu eta Jonen partetik.



Aranoko **KARLOITA PARGADE REKARTEK** apirilaren 26an 7 urte bete ditu. Zorionak eta muxu pila Arano eta Goizuetako familiaren partetik prexioxa!



NAROA SANTESTEBAN OTXANDORENA zubiatarak urteak bete ditu apirilaren 15ean. Zorionak eta muxu handi bat Esther eta bere familiaren partetik.



ANDRE DA COSTA SILVA lesakarrak 6 urte beteko ditu maiatzaren 6an. Muxu haundi bat familiaren partetik. Zorionak txirindulari!

Anima zaitetz!
oso erraza da
zoriondu
internet bidez
www.ttipi.net

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK
zure laguntza behar du

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK
zure laguntza behar du

Proiektu zenbakia: **15.996**
Eginzazu TTIPI-TTAParen alde

Zure laguntza eskertzeko, motxila eder hau izanen duzu opari.

Eska ezazu TTIPI-TTAParen proiektua aukeratu izanaren frogagiria Nafarroako Kutxaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPara 2009ko abenduaren 30a baino lehen.

geure bezeroek aukeratutako proiektua **can**

deskontuak

DENDA HAUTETAN EROSTEAGATIK

Sansiñena garagea

SANSIÑENA Tailerra • ELIZONDO
%10eko deskontua olio-aldaketetan

POTTOKI

POTTOKI Haurren denda • ELIZONDO
%5 oparitzeko artikulua ttiketetan

OSTIZ

OSTIZ Zapata-denda • DONEZTEBE
%10eko deskontua

MAIMUR

MAIMUR Liburu-denda • LEITZA
%10eko deskontua oparitzeko artikuluetan

JUAN J. PIKABEA

PIKABEA Arropa-denda • DONEZTEBE
%10 igailza marka batzuetan izan eskil

bixkiak

BIXKIAK Arropa-denda • LESAKA
%10eko deskontua

SARIDUNAK:

- 3 liburu (Ibaizabal); Mari Tere Urkijo (Lesaka)
- Argia harpidetza: M^o Dolores Barno (Elizondo)
- Txapela buruan jantzia: Irene Aioroa (Sunbilla); Patxi Castillo (Bera)
- Pirritx, Porrotx eta Mari motots lotea: Leire Portu (Lesaka)
- Onddo kamiseta: Julen Zubieta (Etxalar); Xabier Iturria (Etxalar)
- (Ferminmusic): Ainara Mindegia (Aurtitz)

SMSa

2 sarrera (Aquarium); Maritxu Petrirena (Elgorriaga)

2 sarrera (Artic izotz jauregia); Arantxa Apeztegui (Irurita)



Animatu www.ttipi.net
bitartez ere parte har dezakezu.

ESKATU ZURE TXARTELA
948 63 54 58



ttipi txartelarekin beti irabazten da!

15 zozketa

PARTE HARTZEKO deitu
ostelehenetik ostiralera
09:00-16:00

Tel: 948 63 54 58

HIRU LIBURU

Katalin mallagarria eta
transauro flex (I-II)
Barraskiarenena, eta
beste hamabost (I-III)
Aingeru (I-III)

1 Lote 1

[ibaizabal](http://www.ibaizabal.com)
www.ibaizabal.com

1 BI LIBURU

Eta (I-III)
Bilbao-New York Bilbao (I-III)

Lote 1

ekar
fundazioa
www.ekar.com

Txapela Buruan

3 JANTZIAK

Sovekua, karmetak,
perretak... duk aukeratu

2 Lote

[txapela buruan](http://www.txapela-buruan.com)
www.txapela-buruan.com

ALTXORRAK
eta LAPURRAK
MAHAI-JOLASA

Lote 1

4

[Ikastola Elkartea](http://www.ikastola.net)
www.ikastola.net

oninart

5 BI KAMISETA

Lote 1

[oninart](http://www.oninart.com)
www.oninart.com

6 CD

Mikel Alustiza

Lote 1

[ferminmusic.com](http://www.ferminmusic.com)
www.ferminmusic.com

ttipi saskia TTIPI SASKIAren ZOZKETAN JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE

Bidali SMSa idatziz TTIPI SASKIA eta zure IZEN-DEITURA **5767** ra

CAMELOT PARK
2 SARRERA
TXINGUDI ALCAMPO • IRUN
943 626 216

Mendukilo
Lote berririkoa & Concha berririkoa

**5 sarrera bikoitz
eta liburu bat**

[ASTIZ \(Nafarroa\)](http://www.astiz.com)
948 396 095

Zozketaren parte hartzeko epena: apirilaren 24an martutzaren 9era. Irabazlearen izenak martutzaren 14ko astelehenetik argitaratuko dira. Murrizketa kostua 1.000.000.000 gabe. Zure estatuko TTIPI-SASKIAren Zozketaren gondbeko diru aurrerantzean izanen diren eskaritzen berri emateko. Zuzenbetea eta berriematearen bidez egiteko deitu 948 63 54 58ra.

Lur

maiatzak **2** larunbata

EROTIK 2

GAU BEROENA LUR ARETOAN!!

01:00 Ateen irekiera 02:00 Ekitaldien hasiera 9€

maiatzak **9** larunbata

LURDJOTAK

01:00 9€ Kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

maiatzak **16** larunbata

INESH vs. AK

01:00 9€ Kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

maiatzak **30** larunbata

DES-KONTROL

+ TALDE SORPRESA

23:30

BISITA EZAZU
DURE WEB ORRIA

LURELIZONDO.COM